

Herririk Herri | 2 |

Txosnak Pinondon aurten ere,
udalagaz adostasuna lortu eta gero



Berbaz | 8 |

Erreka Mari panpin tailerra, jostailuen
bitartez baloreak transmititzen

Kultura | 11 |

Isaac Erdoiza dantzari abadiñarragaz,
'Privolva' lanari buruz berbetan

DURANGALDEA | 2

Ilustrazio sasoia aztergai Ondare Jardunaldietan

Durangaldean, 16 ekitaldiz osatutako
egitaraua eskainiko dute urrian zehar

Humbolt-ek eta Astarloak gidatutako bisita
antzeztua antolatu dute, besteak beste



Iazko Europako Jardunaldietan Garain antolatutako bisita gidatuan hainbat lagunek parte hartu zuten. Gerediaga elkartea

DURANGO | 2

Aitziber Irigoras eta Jose Luis Navarro EUDElen

Durango alkatea zuzen-
daritza batzordeko kide
izango da, eta Abadiñokoa
berriz, Bizkaiko batzorde
eragileko kide.




KIROLAK | 16

Klasikoen Rallya antolatu dute astebururako Durangaldean

KULTURA | 13

Kantulagunen bigarren denboraldia Plateruenean

GEHIGARRIA



HERRIRIK HERRI >

DURANGO

Errotazio berria zehaztu bitartean, aurten ere txosnak Pinondo parkean

Errotazio berria gauzatzeko herrigunetik gertu dauden beste kokaleku batzuk aztertuko dituzte

Txosnek Pinondo izango dute aurten ere kokaleku. Udalak Zumar kaleko eta Pinondo-ko errotazio sistemagaz jarraitzea proposatzen zuen behin betiko leku bat topatu arte, akordio hori 2009an amaitu zen arren. Zumar kalea ez dela kokapen egokia irizita, Txosna Batzordeak herrigu-

Pinondo eta herrigunetik gertu dauden lekuak aukeratuta. Txosna Batzordekoen azaldu dutenez, errotazio sistema horregaz ados daude eta bost aukera aztertzen dihardute.

Akordiorik ez

Durango EAJk Txosna Batzordeari akordio zirriborroa helarazi dio txosnen jarduna erregulatzeko helburuagaz. Txosna Batzordeak azaldu dutenez, ez dator bat gobernu taldeak proposatzen dizkion hainbat puntuz. Akordio horren eztatidagaz jaien ondoren jarraitzea proposatu du Txosnen Batzordeak.

Komunikabide batean, txosnen araudi moduan definitutako dokumentuak udaleko alderdi politiko guztien onspena duela kaleratu dute. Bilduk eta Aralarrek informazio hori gezurtatu dute, prentsa ohar bidez. "Artikuluaren aipatzen den araudiaren kopiarik ez dugu jaso ere egin". ■ J.G.

Durango Udalak eta Txosna Batzordeak errotazio sistema berria adostu dute

Pinondo eta herrigunetik gertu dauden lekuak aukeratzeagaz ados daude

neangura zituen txosnak. Joan zen egunean udaleko Kultura Batzordean errotazio sistemagaz jarraitzea adostu zuten, baina beti ere

Landako Eskola saritu dute Mugikortasun Astean

Iraunkortasunaren aldeko lanagatik jaso du saria

Mugikortasun Astearen barruan, Durango Udalak Landako Eskola saritu du, 'Landako eskolara oinez' ekimenagaz iraunkortasunaren alde egindako lanagatik.

Iaz umeek eskola joan-etorriak zelan egiten zituzten aztertu zuten. Ondoren, ibilbide bidez haz-

tu zituzten, bide hori elkarrekin oinez egiteko. Aurtengo ikasturtean zehar hirugarren bat sortzeko asmotan dira: "Aramotz auzuneko hainbat gurasok interesa erakutsi dute", dio Lurdes Etxeita Landako Eskolako Agenda XXI programaren arduradunak. ■ J.D.



Durango udaletxean burutu zuten sari banaketa.



Landako Gune batzarrean Durangaldeko hainbat herritako alkateak batu ziren.

EUDELeko zuzendaritzako kide izango da Aitziber Irigoras

Jose Luis Navarro, berriz, Bizkaiko batzorde eragileko kide izango da

Martitzenean EUDELek (Euskadiko Udaletxe Elkarteak) datozen lau urteetarako presidentea, zuzendaritza batzordea eta Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako batzorde eragileak aukeratzeko batzarra egin zuen Durango Landako Gunean.

EUDELeko zuzendaritza batzordeko kide guztiak EAJ, PSE-EE eta PPK koalizioan aurkeztutako kideak dira. Zuzendaritza

batzordeko 12 bokalen artean Aitziber Irigoras Durango alkatetea dago. "Udalerrri denei euren proposamenak helarazteko erraztasunak ematea eta kezkei konponbideak ematea dugu helburu", adierazi du Irigorasek.

Navarro, Bizkaian ordezkari
EUDELeko Bizkaiko batzorde eragileko kide izango da Jose Luis

Navarro Abadiñoko alkatea. "Pozik gaude independenteek ordezkari bi lortu ditugulako, baina haserre ere bai ez gaituztelako zerrendak osatzerakoan ezertarako aintzat hartu", adierazi du.

Bestalde, EUDELeke lehenengo emakumezko presidentea izango du datozen lau urteetan: Ibone Bengoetxea; Bilboko alkateordea da EAJ alderditik. ■ J.D.

Tabira egoitzako hiru kaleratuen alde egin du Bilboko epaitegiak

Bilboko lan arloko epaitegiko epaiaren arabera, maiatzeko hiru kaleratzeak "bidegabeak" dira

Durango edadekoen Tabira egoitzan hiru langile kaleratu zituzten maiatzean. Langileek ELA sindikatuaren bitartez erabakia errekurritu zuten, eta asteon jakin dute Bilboko lan arloko epaitegiaren erabakia. Epaian agertzen denez, hiru kaleratzeak "bidegabeak" dira.

Berriro kontratatu beharko dituzte, edo urtean 45 eguneko kalte-ordaina eman

Maiatzean kaleratu zituzten beharginak, eta hainbat protesta ekitaldi izan ziren

Enpresak hiru beharginak arrazoi objetiboengatik kaleratu zituztela arrazoitu zuen; kaleratzeak modu horretara ematen badira, lan urteko 20 egunekoa da kalte-ordaina. "Epaia arabera argudio horiek ez dira egiazkoak, eta kaleratzeak bidegabeak dira", azaldu du Mikel Etxebarria ELAko ordezkariak. Epaia berriak egoera aldatu egin du. Orain Tabira egoitzako ugazabek aukera bi dituzte; langileak berriro kontratatzea edo lan urte bakoitzeko 45 eguneko kalte-ordaina ematea.

Kaleratzeak maiatzean

Maiatzean kaleratu zituzten hiru langileak. Hainbat protesta ekitaldi ondoan langileek auzitegi-rajok zuten, eta irailaren hasieran egin zuten epaiketa. ■ J.D.

Jare taldearen kontzertua Goienkaleko jaietan

Goienkale kaleko jaiak ospatuko dituzte asteburuan, + Dendak elkarteak antolatuta. Gaur, 19:00etan, txaranga-poteoa egingo dute. Bihar, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara umeendako parkea zabalduko dute. Eguerdian,

Umeendako parkea ere ipiniko dute zapatu goizean eta arratsaldean

12:30ean, dantzarien emanaldia egongo da eta 14:00etan sardina janera joateko gonbita luzatu dute. 17:00etan mus txapelketa jokatu dute Maite tabernan. 23:30ean, berriz, Jare taldearen kontzertua eskainiko du; Idi Bihotz taldeko kide izandakoek osatutako taldea da Jare. Domekan, jubilatuen bazkaritara batuko dira Anboto tabernan. ■ J.D.

DURANGALDEA

Ondarearen Jardunaldien bidez ilustrazio garaia aztertuko dute

Durungaldean 16 ekitaldiz osatutako egitaraua proposatu dute, urrian zehar

Ondarearen Europako Jardunaldiek 'Ilustrazioa' hartu dute aurten berbagai. Iaz lehenengoz jardunaldietan parte hartu zuten Elorrio, Iurreta, Durango, Garai, Mañaria eta Otxandiori, aurten Berriz eta Zaldibar batu zaizkie. Udalez gainera, Aldundiak, Gerediaga elkar-teak eta Urkiola Landa Garapenak antolatuta duten programazioaren helburua Durungaldeko herriek ilustrazio sasoian zuten garrantzia ezagutzera ematea da. Durungaldean 16 ekitaldiz osatutako egitarau oparoa antolatu dute. Humbolt eta Astarloa lako pertsonaiek

gidatutako hainbat bisita gidatu antzeztutan parte hartzeko aukera izango da. Elorrio Basilika eta eraikin ugari aztertuko dituzte. Durangon kanpandorreak bisitatu dituzte. Berrizko eraikuntzako lanbideen erakusketan harria, zura eta burdina lantzen duten artisauak bilduko dira. Garain, bazkari ilustratua prestatuko dute, *Libro de cocina incompleta* Gere-

Egitarauko ekitaldietan parte hartzeko izena emateko epea hasita dago

diagak argitaratutako liburuxkan oinarrituta. Bi musika emanaldi eskainiko dituzte: kanpai kontzertua Iurretan eta organu kontzertua Mañarian. Zaldibarko elizpean bertso-pilota partida antolatuko dute lehenengoz. Otxandion, eguzki erlojuen argazki erakusketa eta Durangoko astronomia gelaren eskutik ume eta helduendako tailerrak prestatuko dituzte. Izena emateko aukera dago 688 63 22 84 telefonoan, europaondarea@gmail.com-en eta baita Durangoko Turismo Bulegoan ; turismo@durangoudala.net eta 946033938. ■ J.G



Durangon kanpandorreak bisitatuko dituzte.

'Bateragune' auziko epaia salatzeke mobilizatu dira

Gehiengo sindikalak "sententzia politiko berri horri" aurre egiteko beharra azpimarratu du

Joan zen astean 'Bateragune' auziaren epaia eman zuen Auzitegi Nazionalak, eta Ezker Abertzaleko kideei 8 eta 10 urteko kartzela zigorra ezarri die, Batasuna birsortzea egotzita. Gehiengo sindikalak mobilizazioak deitu zituen

Zapatuan Bilbon izango den manifestaziora joateko deia egin du gehiengo sindikalak

epaia jakin eta berehala. Durangon hamarnaka lagun batu ziren astelehenean udaletxe aurrean, ordu erdiz. Bertan, "sententzia politiko berri honi aurre egiteko beharra" azpimarratu zuten, amaieran. ELA, LAB, STEE, HIRU eta EHNE sindikatuek deitu zuten mobilizazioa. Zapatuan Bilbon egingo den manifestaziora joateko deia ere egin zuten. Epaian jasotzen denez, Otegi eta Diezi hamarna urteko kartzela zigorra ezarri diete auzitegiak; Jacinto, Rodriguez eta Zabaletari, berriz, zortzina urteko kartzela zigorra. ■ J.D.



Udaletxearen aurrean egin zuten mobilizazioa.

Durango

Durango 1800. urte inguruan Bisita gidatua Santa Ana eliza-ko kanpandorrera igoko da. Urriko larunbat denetan goizez

Durango, beste begirada bat Santa Ana dorretik Durangoko ikuspegia eskaintzen duen instalazio artistikoa Urrian egunero / 10:00-14:30

Berriz

Eraikuntzako lanbideak Erakusketa Urriak 9 / goizez

Garaiko ilustratua zen Iturriaren Berriz herria Bisita gidatua Urriak 9 / 12:00

Elorrio

Ilustrazioaren aztarnak: Guztion ongizatearentzako eraikuntzak Bisita gidatua Urriak 2 / 11:30

Elorrioko Basilika Bisita gidatua Urriak 1 / 17:30

Iurreta

Plaza baten inguruko istorioak Hitzaldi antzeztua Urriak 15 / 12:00

Plaza baten inguruko soinuak Kanpai kontzertua eta dastaketa Urriak 15 / 13:00

Garai

Landa bizitza Dominga Urionaren garaian Bisita antzeztua eta bazkari ilustratua Urriak 16 / 14:00

Mañaria

Mañariko bandera, Bizkaiko zaharrena Iñaki Irigoienek hitzaldia Urriak 22 / 17:30

Mañarin zehar Humboltekin Bisita gidatua Humbolt eta Astarloaren eskutik Urriak 22 / 18:30

Durungalde klasikoa Organu kontzertua Patxi Garcia Gamillaren eskutik: Urriak 22 / 19:30

Otxandio

Eguzki erlojuak ezagutzen Umeentzako tailerrak udaletxe-ko arkupean eta nagusiendako tailerra bolatokian Urriak 23 / 11:00-12:00

Eguzki erlojuak Durungaldean Argazki erakusketa: Txelu Angoitia eta Esteban Peñalba Urriak 23 / 11:30-15:00 Urriak 29 / 12:30-15:00

Zaldibar

Elizaldeko plaza: Gune zibila Bisita gidatua Urriak 29 / 10:30-12:00

Elizaldeko plaza: Gune soziala Pilota, bertso eta dantza Urriak 29 / 13:30

e t x e a
i a t
i a t
e t x e a

PLATERUENA

Astelehena
ASTELEHENGORRI

Asteartea
ARINARIN

Asteazkena
AHOBETEMUNDU

Osteguna
GEUREKONTU

Ostirala
BARIKUNASAI

Astelehenetik zapatara egunero aukeran:

Menu ekologikoa

Menu begetarianoa

Haurrentzat menu erdia

Eskatu MENU TXARTELA 10. menua OPARI

PLATERUENA KAFE ANTZOKIA Landako etorbidea, 4 A.
48200 Durango Jatebhea: 946030300

ABADIÑO

Kiroldegi berriaren "gabeziak" salatu dituzte jokalariek

Traña-Matienako kiroldegi berriaren gabeziez ohartarazi dute Abadiñoko futbito talde biek

Milioi erdi euroko aurrekontuagaz Traña-Matienan altxatu duten kiroldegi aurrefabrikatua "kirola egiteko inguruko herrietara joan behar izaten dutenei herrian jarduteko aukera eskaintzeko" egingo zute-

la nabarmendu zuen Jose Luis Navarro alkateak, otsailean, azpiegitura berriaren proiektua aurkeztu zuenean. Abadiñoko Lagun eta Gaztetxeako futbito taldeek orain arte Berrizen eta Elorrioren jokatu behar izan dute, eta, asteon azaldu digutenez, kiroldegi berria egin da badago ere berdin egin behar dute orain ere. "Traña-Matienako kiroldegi berria ez da aproposa partidak jokatzeko", euren ustez: "Federazioa etorri behar litzateke azpiegitura homo-



Jauziz gero arriskutsua izan daitekeen zoru lakarregia du kiroldegiak, jokalarien ustez.

Denboraldi honetan ere Berrizera eta Elorriora joango dira partidak jokatzeko

logatzera, eta ez dakigu dagoen egoeran azpiegitura onartuko lukeen". Besteak beste, "argitasun falta, aldagela txikiak eta zoru arriskutsua" dauzkala kiroldegiak salatu dute jokalariek, eta "euria eta hai-

"Azpiegitura homologatu behar luke federazioak, eta egoera honetan ez dugu uste ontzat emango lukeenik"

zea barrura sartzen" direla. Konponketak egiteko eskaria egin diote gobernu taldeari. Azarora arte, behintzat, konponketak egiteko aurrekonturik ez duela izango erantzun die alkateak. ■ I. Esteban

Ehun urte bete dituen Casimira Verderi omenaldia, jubilatuen etxean



Traña-Matienan bizi den eta abuztuaren 16an 100 urte bete zituen Casimira Verde herrikideari omenaldia egin zion Abadiñoko Udalak domekan. Jubilatuen Traña-Matienako etxean, familiakoek eta lagunek inguratuta gozatu zuen Casimira Verde bere omenezko ekitaldia. Herriko Norte y Sur eta Iluntze taldeko dantzarien emanaldia izan zen lehenengo, eta lore-sorta ere jaso zuen omenduak, udalaren izenean.

Oinezkoendako bide zaharra zabaldu dute

Obrak egiteko abuztuaren 8an itxi zuten bidea zabaldu dute, behin-behineko soluzio moduan

Traña-Matiena eta Gerediaga arteko oinezkoen bide berriko obrak amaitzen dituzten bitartean, auzoen arteko bidea oinez egin gura dutenentzako behin-behineko pasabidea atontzeko konpromisoa hartu zuen obraren ardu-

Traña-Matiena eta Gerediaga arteko oinezkoen bide berriko obrak amaitu arte, pasabide zaharra erabiliko dute

ra daukan Interbiak enpresak, Jose Luis Navarro alkateak joan zen barikuan adierazi zuenez. Euren auzotik Traña-Matienara oinez joateko modurik ez dutela salatu zuten Gerediagaako auzotarrek joan zen astean, eta obraren arduradunekin batu zen barikuan Navarro alkatea.

Abuztuaren 8an utzi zuten oinezkoendako pasabidea egokituta, eta berria egin arte erabilgarri dago eguaztenetik.

Oinezkoendako pasabide berria, N-634 errepidea zubi batek igarotzen duena, urriaren hasieran zabalduko ei dute. ■ I.E.

Batukada tailerra eta jabekuntza saioak

Udaleko Berdintasun Sailak iaz lehenengoz antolatu zuen batukada tailerra, arrakasta handiz

Iaz lehenengoz antolatu zuen batukada taldeari jarraipena emateko helburuagaz aurkeztu du Batukada tailerra Udaleko Berdintasun Sailak: urritik ekainera arte izango dira tailerraren saioak. Joan zen urteko perkusio tailerrean jardun zuten hamaika emakumeren taldea "sendotzeko" asmoz, eta "batukada tailer berriagaz emaku-

meen arteko hartu-eman sozialak eta hazkuntza pertsonala sustatzeko" helburuagaz antolatu dute bigarren urtez.

Jabekuntza tailerra

Genero politiketan aditua den Eskarne Larrinaga pedagogo eta terapeutak dinamizatuko duen jabekuntza tailerra ere eskaintzen du ikasturte berrirako Berdintasun Sailak. "Emakumeek euren ahalmenaren kontzientzia hartu dezatela, eta euren autonomia fisikoa, ekonomikoa, politikoa eta sozio-kulturala hobetu dezatela", dute bultzatzaileek helburu. ■ I.E.

Eskarne Larrinaga pedagogo eta terapeutak dinamizatuko du jabekuntza tailerra

ELORRIO

Ikasle gehiagorengana zabalduko dute Eskola Kirola zerbitzua

LHko hirugarren eta laugarren mailetako ikasleek ere parte hartu ahalko dute aurtan

Elorrioko Udalak ikasturte honetan Eskola Kirola zerbitzua eskaintzen jarraitzeko kontratazioa arautuko duen administrazio baldintza-agiria onartu du. Zerbitzu horrek herriko umeei eskola-orduetatik kanpora kirola egiteko aukera eskaintzen die.

Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailako ikasleek ez eze, aurtan hirugarren eta laugarren mailakoek ere parte hartu ahal izango dute. "Ekimen polita dela uste dugu, eta ume gehiagori zerbitzu honetaz gozatzeko aukera eskaini gura diegu", azaldu du Ana Otadui Elorrioko alkateak. Matrikula 80 eurotan

ezarri dute. "Ekimen honen helburua kirola lehia-jarrerarik barik egitea da", azpimarratu du Otadui. Umeek beste ikastetxeetako ikasleekin hartu-emanak sendotu eta herrian ohikoak ez diren kirolak -piraguismoa, arku jaurtiketa eta eskalada, esaterako-, praktikatzeko aukera edukiko dute.

Ohikoak ez diren kirolak praktikatzeko aukera edukiko dute umeek

Ikastetxeei diru-laguntzak

Bestalde, udalak herriko bi ikastetxeri kirol-instalazioak hobetzeko diru-laguntzak ematea onartu du. Lourdes Eskolak 8.353 euro jasoko ditu eta Txintxirri Ikastolak 4.504 euro. ■ M.O.

Elorrioko Bira, inguruko mendi eta auzoetan zehar, domekan

Erdella mendizale taldeak Elorrioko Bira antolatu du domeka honetarako, urtero iraileko laugarren domekan egin ohi duen moduan.

Ibilbidea 31 kilometrokoa da, eta Elorrio inguratzen duten mendi eta auzo guztiak zeharkatuko ditu; 07:30ean hasiko da plaza. Tartean, jan-edanerako postuak egokituko dituzte, parte-hartzaileek indarrak hartzeko. Amaieran, duxatzeko aukera ere izango dute. Bost eta zortzi orduaren artean beharko dituzte ibilbidea osatzeko, jakinarazi dutenaren arabera.

Tartean, jan-edanerako postuak egokituko dituzte, indarrak hartzeko

Antolatzaileek diotenez, bira txiki bat ere prestatu dute, 09:00etan hasiko dena, "jende guztia animatu dadin". Hiru edo lau ordukoa izango ei da. ■ M.O.



Brico Centro



Bertan izango dozu:
 Elektrizitatea
 Burdindegia
 Lorezaintza tresnak
 Fitosanitarioak
 Pintura eta osagarriak
 Animalia txikien elikadura
 Etxeko tresnak
 Garbikariak
 Arropa eta oinetakoak
 Automobil tresnak

ESKOLARA BUELTA



DEKORAZIOA



SAKE S.A. BRICO CENTRO EUSKOLUR

Eitua Industriagunea • San Fausto eraikina, 1 • 48200 BERRIZ
 Tel.: 94 622 53 34 • Fax: 94 622 54 56 • euskolur@sake.es

ATXONDO

Zinegotzi kargua utzi du Buruaga jeltzaleak

Udalbatzak alkateordearen liberazioa eta EAJko zinegotziaren dimisioa onartu ditu asteon

Migel Angel Buruagak "arra-zoi pertsonalak" direla-eta, zinegotzi kargua utzi du, Atxondoko Udalean hamabi urte egin eta gero. Azaldu duenez, herri mailan "alderdi barruko zati-keteten gaineko zurrumurruak" egon dira hauteskunde kanpaina eta ostean, eta "kaltea egin dutela argi ikusi zen hauteskun-

Atxondoko EAJk bi zinegotzi berri jarri beharko ditu Buruaga eta Espiauren orde



deetan". Buruagak duela hile biera-baki zuen dimisioa aurkeztea.

Asteleheneko udalbatzarrean hiru zinegotzi jeltzaleetatik Jose Luis Espiau baino ez zen egon, inbestidura saiotik hartu barik zeukan kargua hartzeko. Espiauk, baina, aste honetan bertan dimittitzeko asmoa azaldu zuen. Adierazi duenez, zerrendan "EAJri laguntzeko" aurkeztu zen, independente moduan, baina bere ustez ez da "zinegotzi izateko pertsonarik egokiena". Atxondoko EAJk bi zinegotzi horien ordekoak aurkeztu beharko ditu.

Alkateordea liberatuta

Rosa Elizburu alkateak bere "lanpostuaren berezitasunengatik" udaleko lanen jarraipena egiteko arazoak dituela eta, Juanjo Nora alkateordea liberatzea onartu du udalbatzak. Lanaldi osoan egongo da beharrean, urtean 35.000 euro gordin kobratuta. Soldata EUDELek Atxondorako proposatzen duenaren % 90 izango da. ■ A.U.

IURRETA

Gazteentzat alokairurako diru-laguntza deialdi berria

Gazteek etxebizitzak alokairuan hartzeko diru-laguntza deialdia kaleratu du Udalak. Urriaren 10ean zabaldu eta azaroaren 11n itxiko dute eskariak egiteko epea eta, gehienez, hilean 250 euroko laguntza bideratuko dute. Udalak 6.000 euroko diru-atala gorde du 18 urte-tik 35 urtera arteko gazteei zuzendutako laguntzotarako.

Laguntzotarako diru-atala 20.000 eurotik 6.000ra jaitsi dute, eskariei egokituz

Iaz 20.000 euro lotu zituzten laguntzotarako, baina aurtengo diru-atala batutako eskariei egokitzea erabaki du Udalak: iaz, aurkeztutako hiru eskarietatik bi onartu zituzten. Bete beharreko baldintzak dira bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerak urtean 28.000 euro gordin baino gehiagokoak ez izatea eta etxebizitzarik ez edukitzea jabetzan. Alokairuaren kostua hilean 750 euro baino gehiagokoa ere ezin da izan, eta ez dute onartuko urtebete baino iraupen laburragoko kontraturik.

Gazteei emantzipazio prozesuan babesa ematea da deialdi horren helburuetariko bat. Baita gazteei aukera ematea ere, Iurretan bertan alokairuko etxebizitzak eskuratzeko. ■ A. B.

GARAI

VII. Aste Kulturala eratu du jubilatuen elkarteak

Garaiko San Migel jubilatuen elkarteak zazpigarrenez antolatu du Aste Kulturala, bere izenari jarraituz, San Migel egunaren bueltan. Irailaren 26an hasiko dira ekintzak eta 29a izango da egun nagusia, bazkariagaz.

Irailaren 26, 27 eta 28an kartajokoan jardungo dute; briskan, tutean eta musean, hurrenez hurren. Arratsaldeko 17:30ean hasiko dituzte partidak. Hilaren 28an, gainera, tortilla txapelketagaz jarraituko du egitarauak.

Irailaren 29a, San Migel eguna, hildako bazkideen omenezko mezagaz zabalduko dute, eguerdiko 12:00etan. 14:00etan bazkarian elkartuko dira Herriko Tabernan, eta bazkide nagusienak ere omentzeko aprobetxatuko dute. 28 euroko menua dasatuko dute, irailaren 27a baino lehenago izena ematen dutenek. Bazkalostean txapelketetako sariak banatuko dituzte. ■ M.O.

Irailaren 26, 27 eta 28an karta jokoan jardungo dute, 17:30ean hasita

Irailaren 29an, San Migel egunez, meza eta ondorengo bazkarian elkartuko dira

BERRIZ

EUDELen ereduaren arabera jasoko dituzte dietak zinegotziek

Bilduk orain artekoa erdira jaistea proposatu du, beka batean inbertitzeko

Orain arte zinegotzi bakoitzak 688 euro jasotzen zituen, eta ordezkari gutxien duten alderdiek "nabarmen gutxiago" kobratzen zutela-eta, EUDELen ereduaren onartu dute, EAJ eta PSE-EEren botoekin. Aurrerantzean, zinegotzi bakoitzak 480,15 euro jasoko ditu hilero, eta 53,35 gehiago batzordeburuek. Alderdi politikoak 320,10 euro batuko ditu hilero, zinegotzi bakoitzagatik -alkateagatik izan ezik, liberatuta dagoelako-80,03 gehiagoko ordaina jasoz.

Bilduk orain arteko kopurua erdira jaistea proposatu zuen,

Bakoitzak 480,15 euro jasoko ditu hilero, eta 53,35 gehiago batzordeburuek

Alderdi bakoitzakak 320,10 euro batuko ditu hilero; 80,03 gehiago zinegotziko

soberakina inbertituz. PSE-EEko zinegotziak lana betetzeko hainbat beharrian dauzkatela adierazi du. "Jarrera populista" ego-tzi die Bildukoei. Xabi Zalduak aurreko legealdiko Ezker Abertzalekoen dieten erdia dohaintzan emanda beka bat sortu dutela gogoratu du. Bakoitzak aparteko lanpostua izanda, murriztea "herritarrei zor" dietela dio. Orland Isoird alkatearen iritziz, "populismoa" da hori: "Propaganda lege, etekin politikorako darabilte". Bilduko Puri Perez abs-tenitu egin zen bozketan. ■ M.O.

MALLABIA

Iturrien Ibilbidea antolatuko du urriaren 1ean Orraittio elkarteak

Ibilbidearen ondoren Artixeko sozietatean bazkaria prestatuko dute

Orraittio euskara elkarteak Iturrien Ibilbidea antolatu du urriaren 1erako. Udazkeneko Mallabiko bazterrak ezagutzeko antolatzen duten ibilbideak herriko iturriak hartuko dituela aurtan ardatz jakinarazi dute antolatzaileek. Goizeko 09:30ean Trabakuan jarri dute parte-hartzaileendako

hitzordua. Kotxez Saietzanera joango dira, hango iturria ikustera. Ondoren, kotxeak Artixen utziko dituzte oinezko ibilbideari ekiten. Artixe, Egixe, Izartza, Iturrua, Izengura, Asuntze, Bolueta, Egixe, Marduana eta Egixe iturriak iturri zeharkatuko dituzte ondoren. Mallabitarrei hamarretakoa eroa-

teko gogorarazi diete antolatzaileek. Eguerdiko 14:30ean indarrak berritzeko bazkaritan elkartuko dira Artixeko sozietatean; 12 euro izango da, Orraittioko bazkideentzat 10. Izena emateko azken eguna irailaren 29a da; Mallabiko tabernetan edo 652752468 telefonoan. ■ J.G.



Duela urte bi herriko ermitak bisitatu zituzten antzeko ibilaldian.

Ikastaro eskaintza ugaria ikasturte berrian

Yoga, soinua eta panderoa, abesbatza, dantzak, argazkigintza, spinninga, soinketa eta informatika

Yoga ikastaroa eskoletako gimnasioan eskainiko du Yolanda Napalek. Musika gogoko dutenentzat, soinua eta panderoa jotzen ikasteko aukera izango da Adolfo Jainagagaz eskolan. Abesbatzek ere tradizio handia dute Mallabian, eta

Adin guztietarako ikastaro eskaintza antolatu du Mallabiko Udalak

gazte eta helduendako taldeak Ira-txe Uribelarreak zuzenduko ditu. Txalaparta ikasitako gura duenak, berriz, otsailetik martxora martxan jarriko duten ikastaroan izango du aukera. Umeendako euskal dantza ikastaroa eskolako gimnasioan izango da. Argazkigintzan trebatzeko ikastaroa azaroan izango da. Plazako dantza tradizionalak Maribi Carrillok erakutsiko ditu. Spinninga eta mantenu gimnasia tailerrak Itsaso Praderak emango ditu. KZguneko ikastaroetan arratsaldean parte hartu ahal izango da, eta AEK-k gurasoendako euskara ikastaroak antolatuko ditu. ■ J.G.

Durungaldean labor

Ume bi Gurutzetara, sute baten kea arnastuta

Sutea jazo zen atzo goizaldean Zaldibarren, etxebizitza eraikin baten laugarren pisuan. Kea arnastuta, Gurutzetara eroan zituzten hiru urteko mutiko bat eta hiru hilebeteko jaioberria. Ertzaintzaren arabera, 01:00 aldera sortu zen sutea, egongelan. Sugarren eraginez, etxebizitza eraikin osoko bizilagunak aterarazi behar izan zituen Ertzaintzak, denbora labor batean behintzat.

Munduko nekazarien erronkak berba

Brasilgo Nekazari Txikien Mugimenduko kideek eta EHNEk mahai-ingurua eskainiko dute eguaztenean, hilaren 28an. Solasaldian munduko nekazarien erronken inguruan jardungo dute, eta Pinondo Etxean izango da hitzordua, 19:00etan. Mundu osoko nekazariengan eragiten duten arazoak gainean egingo dute berba.

Jose Urien eta Bizkai irabazle Ardi Jaian

Abadiñoko Jose Urien artzainaren Bizkai txakurra izan zen onena Axpeko (Atxondo) landetako lehian; 344 puntu lortu zituen. Lehenengoz parte hartu du txakurak halako txapelketetan. Bizkaiko Txapelketa irabazi zuen orain asteburu bi, eta oraingoan, berriz, Euskal Herrikoa.



✪ ZALDIBAR

Auzolanera deitu du udalak parke bitan konponketak egiteko

Sortutako erabilera arazoak saihestu gura dituzte

Herritarrentzako deialdia zabaldu du udalak bihar, auzolanean parte hartzea animatuz. Goizeko 09:00etan udaletxeko plazan elkartuko dira, Tabernasolo eta Jose Antonio Agirre parkeetara joateko. Zereginak hauek dira: Tabernasolo parkean zuloak lurragaz estaltzea eta Jose Antonio Agirre parkean harri bolkanikoa kentzea. "Ahal duenak" aitzurra eta pala eroateko eskatu dute udal arduradunek.

Arantza Baigorri alkateak azaldu digu "kexa piloa" sortu duela Jose Antonio Agirreko harri bol-

kanikoak: "Ez egiteko esan arren, azkenean umeek harriekin jolasten zuten, eta parkea beti harriz gainezka geratu izan da". Belarra eta ureztatze-sistema ipiniko dituzte; zati bat Aldundiko dirulaguntzagaz ordainduko dute. Harria kentzea "erraza" dela-eta, aurrezte gura dute, enpresa bati esleitu beharrean. ■ M. Onaindia.

Jose Antonio Agirren harri bolkanikoa kenduko dute, eta Tabernasolon zuloak estaliko



Jose Antonio Agirre parkean harri bolkanikoa kenduko dute.

Urriaren ekingo diote ikasturte berriari Gaztelekuan

Zaldibarko Gaztelekua urriaren 1ean zabalduko dute, ikasturte berria hasiz. 12 eta 16 urte bitarteko gazteentzako zerbitzua da Gaztelekua, eta asteburuetan egongo da parte hartzeko aukera, ekainera bitartean.

Ikastaroak, tailerrak, irteerak eta beste hainbat ekintza prestatuko dituzte gazteentzako. Azaldu dutenez, bertaratzeko baldintza bakarra euskaraz arietzea da; Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren baitan kokatzen da Gaztelekua.

Barikueta 17:00etatik 20:30era, eta zapatu eta domeketan 16:30etik 20:30era zabalduko ditu ateak. ■ M.O.

✪ OTXANDIO

Ur zikinen araztegiak konponketak egingo dituzte

24.000 euroko aurrekontua onartu berri du udalbatzarrek konponketa horiek egiteko

Urteak dira Zelaietako ur zikinen araztegiak arazoak ematen dituela, baina oraintsu egoera okertu egin da eta udalak 24.000 euroko atala onartu du udalbatzarrean konponketa lanak egiteko.

Bi-hiru astean pieza berrien zain egon beharko dute; ondoren hasiko dira lanak

"Araztegiak baldintza guztiak betetzen ditu, baina mugan dago eta beharrezkoa zen konponketa lanak egitea", argitu du Santi Uribe alkateak.

Lanak Hidroambiente izeneko enpresak egingo ditu. Datozen bi-hiru asteetan aldatu beharreko pieza berrien zain egon beharko dute. Piezak heldu bezain laster hasiko dira ur zikinen araztegiak konpontzen. ■ J.D.

✪ IZURTZA

Aldundiko errepideen arduradunagaz batzartuta

Eguaztenean batu ziren alkatea eta teknikariak Aldundiko errepide saileko zuzendariagaz

Eguaztenean batu ziren udaleko teknikariak eta Ballarinalkatea Bizkaiko Aldundiko Errepide Saileko Mikel Iriondo zuzendariarekin. Herria zeharkatzen duen errepidearen trafikoaren eragina gutxitzeko, biribilgune bat eta saihezbidea eraikitze beharra azaltzen dituen gutuna eroan zuten Aldundira. Izurtzako Udalak erakunde horretan urteetan egindako eskariak aurkeztu zituz-

ten beste behin. Errepide Sailaren ordezkariak udalak egindako "eskari guztiei erantzun zuten dietela eta egoera aztertuko duen teknikari bat bidaliko dutela" adierazi zuela azaldu digu Bilduko Ballarin alkateak. Urteetan "eskariak baietz esan eta ez dute ezer egin", dio alkateak. Proiektuok abiatzeko finantziatzaileak daukala aurreratu zion Aldundiak udal gobernari. ■ I.E.

✪ MAÑARIA

Aldundiaren 69.111 euroko diru-laguntza

Aldundiak eskaintako 69.111 euroko diru-laguntzagaz burutu ahalko du udalak Kultur Etxeko lanen hurrengo fasea. Eraikina birgaitzeko proiektuaren bigarren fasearen bigarren partera bideratuko dute diru-laguntza.

Urte honi begira, aurreko udal gobernuak onartu zuen udal aurrekontuan jaso zuten "kultur etxeko bigarren faseko obretara" bideratuko zuela udalak inbertsio nagusia aurtzen; "igogailua ipini eta obrak amaitzeko" zen, diru-atal hura. ■ I.E.



Hurrengo eraikuntza

DURANGO

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behe • Tel.: 94 681 66 73
lurreta • www.zarateylexpe.com

Elorrion ere aukera onak



Urutiaga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AXULEI, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA, HORMIGOI,
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Solaguren kalea 3
Tel.: 94 681 44 74
Faxa: 94 621 53 74
E-mail: urtiaga.sl@terra.es
MATIENA
ABADINO



Arrike
Liburudenda

Kalebarria, z/g - 48200 DURANGO
Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03



goizeko 08:00etatik
gauko 21:00etara
zabalik

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarría

{ odontologia orokorra eta espezialitateak }
muruetorre 2. blokea C behe - 48200 Durango - 94 681 99 51

BERBAZ>

“Umeek sentitu egiten dute panpinak egitean jartzen dugun maitasuna”

Euren ikastaroetako lelo batek dioenez, “heldu batek ume bati egin diezaiokeen jostailu onena eskuz egindakoa da”



Zezilia eta Silvia Urrutxi •

■ Elorriarrak dira

■ Erreka Mari panpin tailerreko kideak

“Norentzat egiten dugun jakin eta haren irudiko panpina egiten saiatzen gara”

ko) eta zentzuz egindako gauzen balioa. Edozein gauza maitasunez egiten dugunean, maitasun hori umeari heldu egiten zaio, eta, gainera, eskuz egindako gauzen balioa ikasten dute; jostailuak apurtu eta erosi orde, konpondu egin daitezke.

Zelan erreakzionatzen dute umeek panpinak jasotzean?

Oso erantzun ederrak jasotzen ditugu gurasoen aldetik: “Panpina etxera etorri denetik, umeak bakarrik egiten du lo”; “Haurrak panpina ikusi duenean bera dela pentsatu du”; “Panpina leku guztietara darama eta berak egiten duen guztia egiten jartzen du”...

Gustura ibiltzen dira orduan.

Umeentzat panpinak bizia duten zerbait dira. Haurrek errepikatu egiten dute bizi izandako guztia, eta panpinarekin eurek jasotako tratua birsortzen dute. Panpinari ematen dioten tratua bidez, giza harremanak nola ulertzen dituzten ikus dezakegu. Panpina umearentzat gizakiaren irudia da, eta bere buruaren irudia eraikitzen eta garatzen laguntzen dio.

Ikasturte berrirako zer asmo daukazu?

Txintxirri ikastolari beste ikastaro bat eskaintzeko asmoa daukagu, eta beste inondik deituz gero prest egongo gara joateko. Bestalde, aurten Elorrioko Ferixa Nagusian egon gara, eta, aukera badaukagu, beste azoka batzuetara ere animatuko gara. ■ A.Ugalde

Amatasunaren premiak bultzatuta, umeentzat eta umeekin eskulana egiten hasi zen ama talde bat, duela 7 urte inguru. Azken urteetan beste guraso batzuekin elkartu dira, eta Erreka Mari panpin tailerra sortu dute.

Zelan sortu zen Erreka Mari panpin tailerra?

Duela zazpi urte taldeko batzuek Waldorf pedagogian oinarritutako ekimen baten hartu genuen parte, eta esperientzia ederra izan zen. Besteak beste, gure umeentzat, eta eurekin batera, ekintza ugari egin genituen: mahaiko antzerkiak, fieltrozko eta artilezko panpinak egin, zetazko oihaletan erabili genituen apaintzeko... Duela bi urte, ikastaro bat antolatu genuen Txintxirri ikastolan, eta jende gehiago batu zitzaigun; horrela sortu zen tailerra. Oso talde heterogeneoa gara baina badago lotzen gaituzten gogo multzo bat: eskulana egitea, gizaki legez haztea, ikasitakoa konpartitzea eta egungo haurtzaroiari beste aukera bat eskaintzea.

“Beste panpinek zehaztasun asko dituzte. Guk egindakoekin, umeek irudimena landu behar dute giza emozioak imajinatzeke”

Zergatik dira bereziak zuek egiten dituzuen panpinak?

Panpina bakoitza bakarra da. Hori da berezitasunik handiena. Hasi aurretik, norentzat den jakiten dugu; zer adin duen, zelakoa den (ilea, begiak)... eta egiten hasten garenetik gure pentsamendua ume edo pertsona horren jartzen dugu. Bestalde, eskuz eginda daude, eta horrek aparteko kualitatea ematen die. Gozoak eta beroak dira. Barrua artilez beteta daukate; animalia lasai batetik datorren materialez. Hori guztia, sentitu egiten da panpina besoetan hartzen duzunean.

Sormena lantzen laguntzen dutela diozue. Zelan egiten dute hori?

Panpinen ezaugarriak oso xumeak dira; begiak eta ahoa oso neutroak dituzte, zehaztasun bakoak, giza emozioak umeak berak imajinatu ditzan. Kanpoan ikusten

diren panpinek aurpegia askoz ere landuagoa dute: betileak, bekainak, zabaldu eta itxi egiten diren begiak, berba egiten dute, irribarretsu daude... Gure panpinekin umeek irudimena landu behar dute gizakien emozio barietatea islatzeko.

Adin tarteen arabera banatu dituzue panpinak.

Umea hazi ahala joaten da bere buruaren kontzientzia hartzen; horregatik, zelako kontzientzia maila halako panpina. Jaio berritan amaren atal dela sentitzen du, baina gero, bere gorputzaz jabetzen hasi eta 5 hileguz gauzak hartzen hasten da. Orduan, Ipotxa deitzen diogun panpina eskaintzen diogu, denetatik gozoena. Burua garatuta dauka, baina hankak eta besoak gorputzaren hedadura baino ez dira, umea ere oraindik ez delako gorputz zati horien funtzioaz

guztiz ohartu. Oinez ibiltzen ikasten duenean, hurrengo panpina eskainiko diogu. Honek hankak definituta dauzka, eta biguna da oraindino, hauraren atalak ere sendotu barik daudelako. 3 urtetik gora, janzteko panpina dator. Umea jolas sinbolikoan sartu da, eta gai da bere irudiko jolas-laguna izango denagaz munduaren funtzionamendua deskubritzen has-teko. Umeen garapenaren eta premien gainean hausnarketa egiten duten profesionaletan oinarritzen da gure lana: Christopher Clouder, Freya Jafke, R. Baldwin Dancy, Michaela Glockler, Sofia Pereira, Rudolf Steiner...

“Umearentzat panpina bizia daukan zerbait da”

Panpinen bidez baloreak transmititu gura dituzue.

Zera transmititu gura dugu, batez ere; maitasunez, material naturalak erabiliz (jangan-garritasuna), modu xumean (irudimenari ateak zabaltze-

ALKIMAX

Alquilamos soluciones

ORGAK, PLATAFORMAK,
HONDEATZAILEAK,...
ERABILTZEAN
SEGURTASUNA
ZAINTEKO
IKASTAROAK

Eitua industrigunea, 71C • 48240 BERRIZ (Bizkaia) • 94 682 45 50 • alkimax@alkimax.com

SEINALIZAZIOA



Bideko barrera



Semaforoak



Konoak



Hesiak



Seinaleak

GARBIKETA



Distiragailua



Fregadora



Garbigailua



Aspiragailua

BEROKUNTZA



Farolak



Infragorriak



Aire kainoa



Erradiadoreak



Hezetasun-kengailuak

www.alkimax.com



IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Urbina berreskuratu! AHTrik ez!

2009ko urtarrilaren 17an manifestazio jendetsua egin zen Urbinan AHTaren aurka. Manifestazioaren ostean jendea obrak modu baketsuan okupatzen ahalegindu zen, baina horren aurrean, polizia autonomikoak neurrigabeko bortizkeriaz erantzun zuen. Emaiza: ehunka identifikatu, hamarnaka zauritu (zortzi erietxera eraman zituzten eta bat ospitaleratu egin behar izan zuten) eta zortzi atxilotu.

AHT inposatzeaz gain, orduko Gasteizko Gobernuak (EAJ-ren esku) zein oraingoak (PSEren esku) AHTaren aurkako mugimendua kriminalizatzea izan du helburu hasieratik, eta Urbinan egun hartan argi utzi zuten berriro ere zein den euren jarraia: inposaketa eta poliziaren indarkeria. Baina agintarien jokaera hori ez dugu Urbinan bakarrik jasan. Ertzaintzak AHTaren aurkako edozer terrorismotzat jotzeko eta Espainiako Auzitegi Nazionalera bidaltzeko agindua jaso zuenetik, eta lehenagotik, gu kriminalizatzeko ahalegin ugari egin dituzte.

Horri lotuta, datorren urriaren 5ean, Urbinan atxilotutako zortzi lagunak aurkako epaiketa egingo dute Gasteizen. Epaituetako bat durangarra da. 2 eta 4 urte bitarteko kartzela zigorra eskatzen dute eurretako seiren kontra, AHTaren aurkako manifestazio baketsu batean parte hartzeagatik.

Horren aurrean, autoinkulpazioak sinatzeko deia egiten dizuegu, epaituei elkartasuna adierazteko eta oraindik AHTaren inposaketa eta horren aurrean erantzuten dutenen aurkako errepresioa jasaten ditugula salatzeke. Sinatu zeuk ere, irailaren 30a baino lehen; Durangaldeko zenbait tabernatan duzu aukera.

Horretaz gain, AHT Gelditu Elkarlanak martxa antolatu du urriaren 1ean Urbinatik Gasteizera, goizeko 10:00etan, eta manifestazioa arratsaldeko 18:00etan; manifestaziorako autobusean betiko leketan eman daiteke izena. Epaiketa urriaren 5ean izango da Gasteizen.

Inposaketarik ez! Epaketarik ez! AHT gelditu!

Durangaldeko AHT Gelditu Elkarlana

Autobus Irainkorra

Benjamin Disraeli politikari ingelesak zioen hiru gezur mota daudela: gezurrak, gezur madarikatuak eta gezur estatistikoak. Iberdrola ezagutu izan balu, aipu bat asmatu ez ezik, liburu bat ere idatzi izango zukeen lehen ministroak, hiru gezurrak lotsa barik erabiltzen dituelako enpresak horrek.

Joan den zapatuan, mugikortasun iraunkorraren astearen harira, Ezkurdi plazan 'Autobus Iraunkorra' jarri zuen Iberdrolak. Puntako teknologiaz hornitutako autobusarekin, bai, baina lotsa gutxiarekin etorri ziren Durangora, herritarrek "sentsibilizatu" eta pedagogia berdea egitera.

Iberdrola Garoñako zentral nuklearraren jabe da %50ean, Nuklenor enpresaren bitartez, Endesarekin batera. Arabatik kilometro gutxira dagoen 40 urteko zentralari ahalik eta etekin ekonomiko handiena ateratzen saiatu da, arriskutsua eta ia lizuna den jardueraren berriztapena lortzeko presioa eginez. Iberdrolak ahotan darabilen iraunkortasuna defendatzen duten erakunde ekologikista guztiek behin eta berriro exijitu dute zentralaren itxiera.

Iberdrolak energia berriztagarria ekoizten duen filiala edukitzeak ez du esan nahi enpresaren jarduera iraunkorra denik. Izan ere, eguneroko propaganda gezurtatzen du errealtateak. Iberdrolak 5 zentral nuklear kudeatzen ditu, ziklo konbentzionaleko 7 zentral (hauen artean ikatza erretzen duen Pasaia zentrala) eta ziklo konbinatuko 8 zentral termiko.

Gainera, gogora ekarri behar da joan den maiatzean Mexikoko hainbat plataformek egindako salaketa. Hainbat enpresa transnasionalek, Iberdrola Renovables-ek tartean, proiektu eoliko erraldoia jarri dute martxan Oaxacako lurraldean.

Bertako biztanleek salatzen dutenaren arabera, Iberdrolak lurrak 60 urterako errentan hartu ditu, era guztietako azpijokoak erabiliz. Bertako botere publikoen eroskeria, poligonoko langileei soldata miserableak ordaintzea, lurrak saldu nahi ez dituztenak judizialki beldurraraztea, etab... Horiek guztiak salatu dituzte indigenek.

Hau gutxi balitz, Iberdrolak 2010ean 743,8 milioi euro jaso zituen diru-laguntzetan energia "berdea" ekoizteagatik. 2.871 milioi euroko irabaziaz aitortu zituzten 2011ko Akziodunen Batzordean.

Hain apalak dira Iberdrolaren irabaziaz, eta hain iraunkorra eta ereduagarria da Iberdrola bera, ezen Durangoko Udaleko gobernua beste bultzadaxko bat ematea erabaki zuela: "debalde total" egin zion propaganda, eta etxe guztietara bidali zuen iraunkortasun astearen egitarauan autobusa bisitatzeke gonbita, "ingurumenarekiko gure konpromisoarekin bat" egiten omen duelako.

Ez eduki zalantzarik Aralarrek kritika politikoa egiteaz gain, udaletxean eskatu egingo duela autobus hori bertan jartzearen dagozkien tasak ordaintzea.

Mikel Anderez (Durangoko Aralar)

Sei hankako mahaia



Urdaspal Bolinaga Bildu

Nik ere euskaraz!

Kontraesanez betetako garaia bizi ditugula entzuten diot jende askori, ni ere uste berekoa naiz. Adibidez: Afganistan eta Irak bezalako lurraldeak bonbardatzerakoan bakearen izean, edo Bakearen Nazioarteko Egunean 35 pertsona atxilotzean auzo oso batentzat, haurretatik hasita helduetaraino, hain erabilia den Kukutza gaztetxea indarkeriaz desalojatzekoan.

Durango ere ez da kontraesan horietaz libratzen. Durangok betidanik euskal jatorri handia izan du; bertsolari bikainak emanez edo liburu eta disko azoka moduko ekintzak burutuz. Hala ere, euskaldun garenok traba ugari aurkitzen dugu gure egunerokoan. Sarritan udal zerbitzuetan ezin gara euskaraz mintzatu; medikuarengana joatean edo denda batzuetan gure hizkuntza ezin dugunean erabili ere ez.

Euskararen erabilera bultzatu eta sustatzeko, borondateaz gain, tresnak sortu behar dira eta berauek erabili

Egoera honi buelta emateko euskararen erabilera bultzatu eta sustatu behar dela argi dago, eta horretarako alderdi guztiek borondatea izatea da lehen pausoa. Baina borondateaz gain, tresnak sortu behar dira, eta berauek erabili. Askotan konturatzen ez garen arren, bakoitzak maila pertsonalean euskararekiko hartu dezakeen konpromisoa izan daiteke sortu genezakeen tresnarik garrantzitsuena.

Guk Durango euskalduna nahi dugu, eta euskaraz bizi nahi dugunok eskubidea daukagu dendatan zein tabernatan... dugun zerbitzu euskalduna izateko. Beste herrietako esperientziak kontutan izanda, merkataria euskaldunen gida banatzen da etxeetan: Durango noiz egingo dugu merkataria euskaldunen gida?

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira. *DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO*



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkartea
2011ko irailaren 23a - 10. urtea - 429 zk.

Laguntzailea:



Eta honako udal guztiak:



Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazio burua:

Itziar Belar.

Administrazioa: Miren Abasolo.

Publizitatea: Goretzi Alonso,

Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri,

Itsaso Esteban, Markel Onaindia,

Amaia Ugalde.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarrtea.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilaria: Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

KULTURA[>]

DANTZA > EMANALDIA

“Hasieratik eduki dut argi sortzea dela gura dudana”

Orain zortzi urte, 28 urtegar, hasi zen **Isaac Erdoiza** abadiñarra dantza garaikidean. Gaur, 20:00etan, aurrestreinatuko du San Agustinen, Olatz De Andrés eta Pilar Andrés-ekin sortutako ‘Privolva’ lana

Zer ibilbide egin duzu?

Dantza munduko nire lehenengo ikastaroa, Sara Paniaguak Durangon emandako urte osoko bat izan zen; orain zortzi urte, hogeita zortzigaz, ezagutu nuen dantza garaikidea. Orduan ez nuen itxaroten inoiz dantzatik bizitzerik, ez hone-tan hainbeste sakonduko nebanik.

Zer erakutsi zizun Durangoko ikastaro hark?

Lehenengo aldia izan zen niretzako gorputzera halako hurbilketa bat egiten nuena: neure buruaren ezagutzagazko lotura fisikoa sortuz. Mundu hori zabaldu zitzaidan ikastaro horregaz, eta bide horretatik jarraitu nuen; 2007an audizio bat egitera joan nintzen Lisboaara. Arte zentro bat zen Lisboaako hura; hamar ikasle ginen

lehenengo urtean; aktoreak, idazleak eta dantzariak, besteak beste. *Performancea* landu genuen han. Sormen prozesu bat bizi izan nuen han lehenengoz.

Aukera ezin aproposagoa izan zenuen Lisboaako hura, beraz.

Nire burua dantzaren munduan sartuta ikusten hasi nintzen; gogotsu nengoen, mundu horrek betetzen ninduela konturatu nintzen.

Disziplina gogorragaz lotzen dugu dantza mundua.

Hogeita zortzi urte nituenen hasi nintzen ni. Hasieratik eduki dut argi dantzari hutsa ez nuela izan nahi, gura nuena sortzailea izatea zela. Lisboaako eskolak aldatu zidan perspektiba: teknika oso konkretu batzuk zen dantza garaikidea



Jon Cazenave

“Olatzek egin du zuzendari lana, baina gure ideietara zabalik egon da hasieratik”

lehen niretzat. *Performancearen* munduan, aldiz, hainbat disziplina baliatzen dituzu komunikatzeko. Ez da dantza ondo egiten duzula erakustea: bilaketa bat da.

Lan hau Durangon erakusteak zer suposatzen du zuretzat?

Atea zabaltzea da; izan ere, lagun askok ere ez nau dantzatzen ikusi. Lehenengoz erakutsiko dut halako lan bat Durangon, antzokiko programazio baten barruan.

Lanaren sormen prozesuan hiru aktorek hartu duzue parte?

Olatz de Andresek egin du zuzendari lana, baina hasieratik egon da zabalik gure ekarpen eta ideietara. Hiru hiletan, egunero zortzi orduan jardun dugu lana prestatzen. Pribilegio bat izan da taldeko partaide izatea, zoragarria: Gironako dantza eskola batean eskaini ziguten egoitza, eta gauza asko konpartitu ditugu prozesu guztian zehar. ■ I. Esteban

Zinemako baliabideak oholtzara ekartzen dituzte Privolva lanean

Olatz de Andrés dantzaria da San Agustin kulturguneko ikasturtea zabalduko duen *Privolva* lanaren zuzendaria. Lana zertan datzan azaldu digu oholtzatik



Jon Cazenave

Zer ideia dago lanaren atzean?

Zientzia fikziozko filmeen iruditerrian oinarrituta sorturiko lana da; ez zientzia fikzio efektista batean, zientzia fikzio filosofikoagoan baizik. Errealia eta ez-errealaren inguruko zalantzak agertzen dituena. Godard zinemagile frantsesaren *Alphaville* filmaren zati bat hautatu genuen: efektu berezirik erabili barik eta balibide gutxigaz, errealitatea iraultzen duen filma.

Mugimendu abstraktuaren inguruko ideia batzuk ere landu ditugu, aldi berean. Osmosiaren ideia, denok elkarlotuta gaudelako ideia jorratu dugu, esaterako: ekintza-erantzunean bata besteari zelan eragiten diogun.

Zer kontatzen du pelikula?

Zenbait berbaren erabilera debekatzen duen botere ahalguztidun bat agertzen da *Alphaville* izeneko hiri batean. Ezaugarri gizatiarrenekin loturiko berbak, “samurtasuna” hitza, esaterako, erabiltzeari uzteagaz batera haren esanahia ahazten dute gizakiek.

Hainbat pieza laburrek osatzen dute ‘Privolva’.

Fotogramak bailiran, zati txikiak osatzen dute obra. Zinemaren baliabideak oholtzara ekartzea da helburua. Pentsamentu arrazionalaren eta emozionalaren kontraposizioa da guztiaren oinarria; zientziaren eta poesiaren aurkakotasuna.

Zelan ipini daiteke honelako proiektu bat martxan?

Diru-laguntzak baliatuta: dantza garaikidearen mundua txikia da proportzioan hemen, eta bada-go laguntzarik lortzeko modurik. Bartzelonan, esaterako, laguntza eta antzoki asko dago, publikoa ohituagoa dago dantzakera anitzak ikustera... Bidea oso egina dute Katalunian, eta hemen asko daukagu egiteko: dantza esperimentala askoz gehiago zabaltzeko aukera daukagu. Lanaren banaketa da gaitzen egiten zai-guna. Oso sakabanatua dago dantzaren mundua gurean: bakoitza bere proiektuetan dabil, edo atzerriko eskoletan ikasten.

ANTZERKIA > EMANALDIA

'Aitarekin bidaian' obraren emanaldia Errotan, bihar

Hika Teatroa talde gipuzkoarrak 2009an estreinaturikoa da bihar, 20:00etan hasita, Abadiñoko Errota kultur etxean ikusgai izango dugun *Aitarekin bidaian*

Orain urte biko urrian Durangoko San Agustin kulturgunean estreinatuzuten *Aitarekin bidaian* antzez-lana, Traña-Matienako Errota kultur etxean izango dugu bihar, 20:00etan hasita, ikusgai.

Udazken eta negu honetarako obraren hainbat emanaldi dauzka taldeak lotuta, eta berrogeita hamarretik gora emanaldi eskaini dituzte urte biotan. Besteak beste, Donostia Antzerki Saria eta euskarazko testurik onenaren Max saria jaso ditu antzezlanak.

Jabier Muguruza musikaria eta Joseba Apaolaza eta Jose Ramon Soroiz aktoreak agertzen dira Hika Teatroa talde gipuzkoarraren obra honetan oholztan.

Agurtzane Intxaurreagak eta Arantxa Iturbek idatzitako testuan

Donostia Antzerki Saria
eta euskarazko testurik
onenaren Max saria

dago oinarrituta *Aitarekin bidaian* antzezlanean kontatzen den istorio gordin eta emotiboa, eta zahar-tzaroari eta belaunaldien arteko inkomunikazioari buruzko gogoe-ta bideratzen du.

Antzezlanean jasotzen den bidaia abiatzen duten arte, elkarren ezezagun diren aita-semeek, gutxinaka elkar zelan ezagutzen duten erakusten du obrak. "Gogorra, baina momentu oso ederrak dituena" da, zuzendariaren berbetan, irailaren 24an Abadiñon ikusgai izango dugun lana. ■ I.E.



MUSIKA > JAIALDIA



Elliott Murphy, Aurora Beltrán eta Loquillo, Duranwop jaialdia zabaltzeko

Irailaren 30ean, Landako erakustazokako Duranwop jaialdian, Loquillo, Elliott Murphy, The Whybirds, The Right Ons, Aurora Beltrán eta Mi Hermana Corina

Irailaren 30ekoa da irabazi asmorik bako The Walk On Project elkar-teak bultzatu eta Durangoko Udalak, BBK-k eta Plateruena kafe antzokiak lagundutako ekimenaren bi egunetako jaialdiaren lehenengo hitzordua.

Jaialdiaren sarreratik batuta-ko dirua, gaixotasun neurodegeneratiboen gaineko ikerkuntzara bideratuko du elkarte antolatzaileak. Irailaren 30ean eta urriaren

Aurora Beltránen
emanaldiak zabalduko
du Duranwop jaialdia

1ean, Landako Erakustazoka izango dute nazioarteko zein Euskal Herriko dozena bat musika taldek baino gehiagok oholztza.

Jaialdiaren lehenengo egunean, irailaren 30ean, Loquillo, Elliott Murphy & The Normandy Allstars, The Whybirds, The Right Ons, Aurora Beltrán eta Mi Hermana Corina taldeek joko dute. Aurora Beltránen emanaldiak zabalduko du jaialdia, eta The Whybirds, Elliot Murphy & The Normandy Allstar eta Loquillok joko dute ondoren. Datorren barikuko gaua ixteko, azaroan hirugarren diskoa kaleratuko duten The Right Ons madrildarrak eta Mi Hermana Corina bilbotarrak gonbidatu dituzte Durangora.

Jaialdiaren bigarren egunerako, urriaren 1erako, The Grave Yacht Club, Steve Wynn, Ariel Rot, The WOP Band & Friends, Gari eta M Clan-en zuzeneko emanaldia dauzkate aurreikusita. ■ I.E.

Ezohiko gaixotasunen
ikerketara bideratuko
dute batutako dirua

Jaialdiaren bigarren
egunean, urriaren 1ean,
joko du Steve Wynn-ek

GEURE DURANGALDEA



Jon Ander Urkiaga
Ikaslea

Beti eskamak kentzen, kentzen...

"Ez dira betiko garai onenak, azken finean gizaki hutsak gara". Eta horregatik, behin eta berriro egingo dugu estropezu harri berberean. Eta horregatik, makurtuko dugu burua betikoen aurrean. Olatuek behin eta berriro harea-pikorra bakoitzaren kontra biolentziaz talka egiten duten era berean. Baina, kasu horretan inork ez du ezertxo ere kondenatuko.

Amaitzeaz da uda. Eta eguzkirik biolentoenak su-etena aldarrikatu du aurtan. Ez die gure herrietako kale mortuei su eman, ez ditu haurren azal leunak erre, ez eta txokolatezko izozki kuku-rutxodunak urtu. Jokaera guztiz zilegia izan omen du berripape- ren arabera.

Eta baliteke gu ere berradiskidetzea. Adiskiderik sortuko ez den arren.

Eta, orduan, gu ere suminduko gara. Ez, barkatu: sumindu egingo dira (ni, badaezpada ere, mindu baino ez naiz egingo, surik barik). Eta dibertitu egingo dira, gaztetxoek lehen aldiz Boy Scoutekin kanpaldian joan zirenean dibertitu ziren bezala. Eta talde-txoetan batuta Chanquete eta enparauak gogorazaziko dizkiguten zibismoz beteriko abestiak kantatuko dituzte gitarra zahar batekin, doinu eta doinu artean 1968an modan zeuden sloganak erein bitartean...

Badirudi Greziakatu batek baino bizitza gehiago dituela. Badirudi zure etxebizitzako hirugarren solairuan bizi denak etxean azken modeloko plasmadun telebistarik ez duelako igarotzen dituela goizak Enpleguko Institutu Nazionalako bulegoan. Gaur goizegi delakoan, lurrak bihar izango direlako lantzen dituztenentzat. Bitartean, lagunok, eskerrak aingeru guardako postmodernoak (BBVA, BBK, La Caixa...) dituzuela zuen arimen zaindari.

"Indarkeriei erantzuteko / erabiltzen da indarra / gaurkoa baino ilunagoa / izan ez dadin biharra" zioen Negu Gorriak musika taldearen kanta batek. Eta bai, *gorri* hitza mespretxuzko adjektibo bat besterik ez den sasoitan udazkena baino ez dugu zain, behingoagatik bada ere, hostoak erantzi eta larru gorritan gertatzeko urtaroa, orbelak edo lotsak lehenago itotzen ez bagaituzte behintzat. Baina, urteen joanarekin batera, nola aldatu diren gauzak, kamarada! Indarrak, kosta ala kosta, hilabete amaierara duintasunez heltzeko erabili behar direlako gaur egun; gaurkoa baino gosetiagoa izan ez dadin biharra.



Iurretako JAI EGITARAUA

IRAILAK 23, BARIKUA

- 19:30ean *Prest Gaude* antzezla-
na Ibarretxe kultur etxean.
- 21:30etik 22:30era, *Rallye
Clásicos Durango*, Elixalden.
- 22:00etan Herri kirolak, Rafa
Zugaza-Artazaren omenez.

IRAILAK 24, ZAPATUA

- 08:00etan Mendi martxa
plazatik.
- 12:45etik 13:30era, Auto zaha-
rren erakusketa, Askondon.
- 17:00etan Umeentzako pailazo-
ak, Askondon.
- 18:30ean Asto-probak.
- 19:30ean Tortilla txapelketa.
- 20:30ean Tortillen aurkezpena.
- 22:00etan Boleroak, Askondon.
- 22:30ean Kontzertuak:
121 Crew, Su ta Gar eta Los
Zopilotes Txirriaos.

IRAILAK 25, DOMEKA (Umeen eguna)

- 09:00etan XXIV. Ahari lurreta
zikloturisten martxa (irteera eta
helmuga San Migel plazan).
- 11:30etik 13:30era eta 16:30etik
19:30era Umeen parkea, puzga-
rriak eta tailerrak (euria bada,
Maiztegi frontoian).
- 18:30ean Asto probak.
- 19:30ean Eriz magoaren umeen-
tzako ikuskizuna, Dantzarin.

IRAILAK 27, MARTITZENA

- 16:45ean Tailerrak eta bits festa,
plazan.
- 19:00etan Symphoni Key talde-
aren folk musika, Ibarretxe kultur
etxean.
- 20:00etan '1911-2011 Herri
Batzordea'-k eta Gerediaga elkar-
teak antolatuta, 1911ko bandera
zaharberrituaren aurkezpena
Udaletxean. Ondoren, berbaldia

eta liburuxkaren aurkezpena
(*Iurretako bandera; oharak*), film
laburraren emanaldia (*Herri bat,
bandera bat*) eta erakusketaren
irekiera.

IRAILAK 28, EGUAZTENA (San Migel bezpera)

- 12:00etan Txapligoak Montoitik;
ondoren, dultzaineroek alaituriko
kalejira.
- 12:15ean Kiki eta Koko pailazoen
Sustrai bizi-biziak umeendako
ikuskizuna, Askondon.
- 14:00etan Herriko Nagusien
bazkaria, eta jarraian Iñaki
Uribesalgo soinujoarekin erro-
meria.
- 14:30ean Gazte bazkaria, pla-
zan.
- 17:00etan *Txikiglub* kalejira
herrigunetik plazaraino.
- 18:00etan Doniel-Hatxa jaso-
tzea. Dantzarien azken entsegua.
- 22:00etan Laiotz taldearekin
erromeria.

IRAILAK 29, EGUENA (San Migel eguna)

- 10:30ean Dantzari eta
Agintariekin kalejira Montoitik
plazara.
- 11:00etan Meza Nagusia.
Ondoren, Dantzari Dantza.
- 12:30ean Bertsolariak: Eneko
Abasolo "Abarkas", Gorka
Lazkano eta Unai Iturriaga.
Ondoren, igel txapelketa.
- 16:30ean Herri kirolak.
- 18:30ean Dantzari Dantza eta
neskek egindako soka dantza.
- 20:30ean Txiri-Txiri taldea.

IRAILAK 30, BARIKUA (Bariku Zuri eguna)

- 17:00etan Umeendako karao-
kea, Askondon.
- 18:00etan Pilota partidak: San
Migel Jaietako X. Txapelketaren
finalak.
- 18:30ean Neska-mutilen talde
ziklistaren aurkezpena,
udaletxean.

- 19:30ean Poteoa, Ardoa Barrura
txarangak lagundurik.
- 22:00etan II. Frontenis
Txapelketa.
- 22:00etan Los Txikis taldearen
bilbainadak, Askondon.
- 23:00etan Desperdizio taldea-
ren kontzertua, eta Edan taldea-
ren erromeria.

URRIAK 1, ZAPATUA (Mozorro eguna: 'munduko kulturak')

- 12:30ean Charanga Grupo de
Ghana taldeak alaituriko poteoa
eta kalejira Montoitik plazara.
- 15:00etan Herri bazkaria.
- 17:00etan XII. Bizikleta Festa.
(Irteera San Migel plazan eta hel-
muga, Olaburu frontoian).
- 17:30ean Maiztegi Eskolako
umeen dantza erakustaldia.
- 18:00etan Club Karate-Ninjutsu
Wadoka-ren kalejira Montoitik
plazara, eta emanaldia.
- 19:30ean M'Lomp
senegaldarren elkartearen
dantza ikuskizuna.
- 22:00etan Bertsolariak: Andoni
Egaña, Igor Elortza, Amets
Arzallus, Maialen Lujanbio, Jon

Maia eta Miren Amuriza. Gai
jartzailea: Unai Iturriaga.

URRIAK 2, DOMEKA (Errosario eguna)

- 10:00etatik 15:00etara XIII.
Nekazaritza eta Artisautza
Azoka, Andaparapen.
- 10:30ean Dantzari eta
Agintarien kalejira.
- 11:00etan Meza nagusia.
Ondoren, Dantzari Dantza.
- 12:30ean Paella txapelketa.
- 14:30ean Txapelketara aur-
keztutako lapikoen aurkezpena.
- 16:00etan Eskupilota parti-
dak: III. Berasaluze VIII.a
Txapelketa.
- 17:30ean Esku pilota.
Profesionalak: Berasaluze VIII-
Ibai Zabala // Urrutikoetxea-
Apraiz.
- 18:30ean Dantza saioa. Talde
gonbidatua eta Iurretako dan-
tzariak. Ondoren, jaietako erri-
fen zozketa.
- 20:30ean Arantza eta
Pantxok alaituriko herri afaria.
- 22:00etan Jaien amaiera,
ohiturazko bertsoak kantatuz.
Gauerdia arte, erromeria.



ondo pasau jaietan!

aitte san migel
jai batzordea





Jai giroaz gozatzeko makina bat aukera

Urriaren 2ra arte adin eta gustu guztiak asetzeko moduko ekitaldiak aukeran

Tradizio handiko ekitaldiak hainbat nobedadegaz uztartu dituzte San Migel jaietako egitarauan.

Besteak beste, musika emanaldiak, umeendako ekitaldiak, herri kirolak, pilota partidak, omenaldia, bertsolariak, mendi martxa eta banderaren urteurrena dela-eta antolatutako ekitaldia prest dituzte, urriaren 2ra bitartean, herritarrentzat eta baita lurretara gerturatzen direnentzat ere.

Irailaren 28an Montoitik txapligoak jaurtiko dituzte, eta dultzaineroek osteko kalejira girotuko dute. Doniel-Hatxa arratsaldean jasoko dute; ondoren, dantzariak azken entsegua egingo dute. San Migel Egunean eta Errosario Egunean, dantzari eta agintarien kalejira

Montoitik plazara irtengo da. Meza nagusiaren ondoren, *Dantzari dantza* saioa eskainiko dute. Dantza saioek arratsaldetan ere beteko dute herriko plaza. Irailaren 29an *Dantzari dantza* eta neskek egindako *Soka dantza* emanaldia izango dira ikusgai. Urriaren 2an, berriz, lurretako dantzariak Gorulari dantza eta *Dantzari dantza* eskainiko dituzte. Beste herri bateko talde bat ere gonbidatuko dute.

Irailaren 28an Montoitik txapligoak jaurtiko dituzte. Arratsaldean, Doniel-Hatxa jasoko dute plazan

Txirrindulariak prest 'Ahari Iurreta'-rako

Irailaren 25ean goizeko 09:00etan bilduko dira Aita San Migel plazan

Ahari Iurreta zikloturista martxak 24 urte daramatza pedalei ematen. Iurreta Txirrindulari Elkarteak iazko ibilbidea prestatu du aurten ere, txirrindularitza gustuko dutenentzat. Irailaren 25ean, goizeko 09:00etan, Aita San Migel plazan jarri dute irtetzeko hitzordua.

Martxari hasiera neutralizatua emango diote, Miotari bira emanaz. Ondoren, Bizkaiko Begiratokitik igaroko dira, Aulestitik kostalderantz hurbiltzeko. Bueltan, Milioi eta Trabakua igo beharko dituzte bizikleta zaleek lurretara itzuli aurretik. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, ibilbidean zehar bi hornidura-gune egongo dira; horietako bat likidoa.

XXIV. Ahari Iurreta Martxa Bizkaiko Txirrindulari Federazioko

egutegian sartuta dago, eta 95 kilometro ditu. Izen-ematea 10 eurokoa da lizentzia duten txirrindularientzat, eta lizentzia barik 22 eurokoa. Probaren egunean bertan apuntatzeko aukera izango dute txirrindulariek, goizeko 08:00etatik aurrera.

Informazio gehiago:
www.iurretatxirrindulari.com
iurreta.idazkari@gmail.com

Martxari hasiera neutralizatua emango diote, Miotari bira emanaz. Ibilbidean bi hornidura-gune daude



AMAYA
AUTOEN KONPONKETAK S.L.

Tel.: 94 681 21 23 • Faxa: 94 620 38 18 • email: oficina@amayaautoreparaciones.com • www.amayaautoreparaciones.com

UAI, 1 INDUSTRIAGUNEA (Orozketa errepidea)
48215 Iurreta / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango

OKINDEGIAT
ALBERDI
Mallabiena, 1 - Tel.: 94 681 03 62 - IURRETA

"la Caixa"

*Ondo pasa
san Migeletan!*

Bixente Kapanaga, 5 • 48215 Iurreta • Tel: 94 622 00 10 • Faxa: 94 621 58 48

Bandera originala eta bere ezkutua, berriz bat

Irailaren 27an, 20:00etan, udaletxean aurkeztuko dute bandera



Datorren martitzenean ehun urte egingo ditu lurretako banderak. 1911n elizateko bandera zaharra konpon-tzea erabaki zuen udalak, eta irailaren 27koa da oraindik ere existitzen den fakturan agertzen den data. Horregatik, datorren martitzena aukeratu dute bandera berriztua aurkezteko. Halako ekitaldi batera, ordea, ezin daiteke edozelan atonduta joan, eta banderak etiketa-jantzia luzituko du.

Udaletxean gordeta zegoenaren atzealdea eraberritu eta beste bandera batean zegoen ezkutua berriz josi diote

Izan ere, udaletxeko pleno aretoan eta 20:00etan aurkeztuko duten bandera berezia da. Urte askoan ezkutua eta atzealdea berezita egon dira. Ezkutua erreplika bat edertu du, eta atzealde originala udaletxean gordeta egon da. Orain, berriz batu dituzte biak, eta bandera originala izango da aurkeztuko dutena.

"Atzealdea bigun zegoen, kolorea gastatuta zeukan eta zulotxoak zituen. Bilboko eraberritze enpresa batek sei hilebete eman ditu lane-

an", azaldu du Gerediagako kide Jon Irazabalek. Udalak finantzatu du eraberritzea.

Ondoren, banderaren inguruko liburuxka eta DVDa aurkeztuko dituzte. Liburuxka euskaraz eta gaztelaraz dago, eta "urteetan apurka-apurka batutako informazioa zein herritarrengandik jasotako anekdotekin osatu dugu", Irazabalen esanetan. DVDak 21 minutuko iraupena du, eta banderaren inguruko daturik esanguratsuenekin batera, herritarren testigantzak jaso dituzte: "Ez genuen informazio pilaketa hutsa egin gura; herritarrek banderarekiko dituzten sentipenak eta bizipenak ere jaso gura izan ditugu",

DVDan herritarrek banderakiko dituzten bizipen eta sentipenak jaso dituzte, datu historikoekin batera

dio Eneko Barroetak. Barroetaz gainera, Asier Otadui, Ziortza Jaio eta Oihane Isasi ibili dira dokumentala lantzen. DVDa eta liburuxka, biak batera ipiniko dituzte salgai herriko hainbat establezimendutan eta liburutegian; 200 ale kaleratu dituzte.

Azkenik, datorren martitzenetik urriaren 2ra arte, banderaren historia azaltzen duen erakusketa ikusgai egongo da udaletxeko pleno aretoan bertan: "Historian zehar banderaren funtzioa zein izan den azalduko du erakusketak; panel informatiboek, banderaren inguruko dokumentuek, argazki zahar zein gaur egungoek... osatuko dute eta 1911ko eraberritze faktura ere ikusgai egongo da". 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik.

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK
IZARBE *Ondo pasatu San Migela*
 Lanparak, oparitzeko gauzak, sukaldeko eta komuneko altzariak
TIE 21
 Bixente Kapanaga, 3 - 48215 Iurreta Tel.: 94 681 22 80 Faxa: 94 621 83 36 izarbek@izarbek.com

IK Iurreta kopistegia
INPRENTA DIGITALA
 Bidebarrieta, 1 behe (Korreos ondoan)
 48215 IURRETA
 Tel. 94 681 10 70
 planos@iurretakopi.com
 mac@iurretakopi.com

EBANISTERIA - AROZTEGIA
ELAI
 Arriandi industrialdea, z/g
 Tel./Faxe: 94 620 07 69
 48215 IURRETA

Parques y Jardines
Abadiano, S.A.
LORAZAINTZA • KIROL ZELAIK • HIDROEREITEA • GOLF ZELAIK
 Gaztañatza auzunea - 48215 IURRETA (Bizkaia)
 Tel.: 94 681 37 93 / 94 681 26 33 / 94 621 55 80
 Faxe: 94 681 90 82
 parques@parquesjardines.euskalnet.net

Zugaza-Artazari omen, 3.400 kiloko harriagaz

Gaur gauez ahaleginduko dira 18 herritar

Desafio berri baten lekuko izango da gaur gauez lurretako probalekua. Gainera, berezia izango da, benetan, aurten zendutako Rafa Zugaza-Artazaren omenez izango da-eta.

Antolatzaileek azaldu digutenez, 18 herritar 3.400 kiloko harritzarra mugitzen saiatuko dira; sei lagunek hiru lerro egin, eta guztien bultzadak esango du apustua beteko duten ala ez. Antza denez, Zugaza-

Artazak behin baino gehiagotan bota zuen harri hori mugitzeko ideia, eta herri-kirol arloan urte askoan beharrean ibili zen iurretarrari omen egiterakoan bere ideiaz akordatu dira. Indarrak

eta emozioak erabiliko dituzte, beraz, harriari tira egiteko.

Lehia

Gaueko 23:00ak aldera hasiko da desafioa, baina aurretik, 22:00etan, 560 kiloko harriagaz lehiatuko dira sei gazte eta astoa. Denbora zehatz batean iltze gehien zeinek egin, horixe da apustua. Aurreko urteetan ere antzeko lehiak antolatu izan dituzte Sanmigeletan eta arrakasta itzela eduki dute. Gaurko ere giro aparta itxaroten dute.

Herri-kiroletan urte askoan beharrean ibili zen Rafa Zugaza-Artazari omen egingo diote



Unai Iturriagaren esanetara jardungo dute bertsolariek

Urriaren 1ean, zapatuan, izango da urteroko saioa

Bertsozale ugari batzen duen saioa izan ohi da lurretako jaietakoa, eta seguru aurten ere frontoia goraino beteko dela. Antolatzaileek punta-puntako bertsolariak gonbidatu dituzte Sanmigeletara: Andoni Egaña, Igor Elortza, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Jon Maia eta Miren Amuriza. Maila handi-koak guztiak; Lujanbio eta

Egaña Euskal Herriko txapelduna eta txapeldun ohia tartean.

Horregaz batera, beste gehigarri bat izango du saioak, Unai Iturriaga izango da eta gaiak ipiniko dituena. Oholtza gainean, baina ezohiko zereginean ikusiko dugu durangarra. 22:00etan hasiko da saioa, frontoian.

Bestalde, San Migel egunean ere bertsotan egin-

go dute Eneko Abasolo "Abarkas"-ek, Gorka Lazkanok eta Unai Iturriagak, 12:30ean.

Egaña, Elortza, Arzallus, Lujanbio, Maia eta Amuriza gonbidatu dituzte antolatzaileek

Juan Ramon Azkonizaga

Ortuzar auzoa, 1 - IZURTZA Biltegia: 94 681 06 52

Banatzailea:



ZIORLA AUTOAK
"baimendutako karrozeria"

San Migel jai alaituak opa deituez!

Sanctiamaña, 19 • 48215 Iurreta • Tel.: 94 681 55 69 / 94 621 71 30



Motorren konponketa, Harilketa, Koadroen automatismoa, Argiteria publikoa, Pabiloiak eta Etxebizitzak

Elektrizitatea

GURE ETXEA, S.L.

Mallabiena auzoa, 56 behea
Tel.: 94 681 28 62 Faxe: 94 681 88 77

48215 Iurreta
(Bizkaia)

SERAPIO CALVO

eskaiolazko dekorazioak

- SABAI ERREGISTRAGARRIAK
- PLADUR SABAIK
- APALAK

Tallerra

Bidebarrieta, 7 behea • Tel.: 94 681 15 12 • Faxe: 94 466 81 00
e-posta: serapiocalvo@euskalnet.net

IURRETA

LAGOI

S.L.

ERAIKUNTZARAKO MATERIALA

Biltegia:
Arriandi auzoa z/g # Iurreta
Tel.: 94 620 33 22
Faxe: 94 621 58 74

Erakusketa:
Montebideo etor. # Durango
Tel.: 94 621 52 84
Faxe: 94 621 52 85
www.lagoi98.com



Munduko kulturek jantzitako jai eguna

Herri bazkaria eta dantza erakustaldiak Mozorro Egunerako

Munduko kulturak batuko ditu Iurretak urriaren lehenengotik. Horixe da, aurtentzen, Jai Batzordeak Mozorro Egunerako aukeratutako gaia. Horretara, hainbat kolore eta doinuak jantzitako eguna izango da. Beste herrialde batzuetatik Durangaldera bizitzen etorri diren kulturetako elkarteek parte hartuko dute egun horretan.

Charanga Grupo de Ghanak alaitutako poteoak eta kalejirak abiatuko du eguna, 12:30ean. Montoitik Aita San Migel plazaraino egingo dute bidea. Bertan bazkaria izango da, 15:00etan. Karate-Ninjutsu Wadokan klubekoen txanda da arratsaldekoa: kalejira egingo dute Montoitik plazara 18:00etan, eta gero erakustaldia ere eskainiko

Beste herri batzuetatik Durangaldea bizitzera etorri diren kultur elkarteek parte hartuko dute Mozorro Egunean

dute. M'Lomp senegaldarrek, berriz, 19:30ean hasiko dute erakustaldia. Eguna osatzeko, Maiztegi herri eskolakoek egingo dute dantzan, 17:30ean.

Aipatu Bizikleta Festa ere abiatuko dela 17:00etan, plazatik. Gau giroa, berriz, Luhartz taldeak bertuko du Mozorro Egunean.

‘Bariku Zuri’ da nobedade, iurretarrak zuriz janztera deituz

Gonbidapen berezia egingo dute, aurtentzen, Sanmigeletan. Jai Batzordeak Bariku Zurixe eratu du lehenengo biderrez. Horretara, urriaren 30ean iurretarrak zuriz janztera deitu dituzte. Umeentzat

karaokea, frontenisa zein pilota partidak eta txirrindulari taldeko neska-mutil taldeen aurkezpena egingo dira. Gau giroa punk eta erromeria doinuek ez eze, bilbainadek alaituko dute.

Nekazaritza eta Artisau Azokak ez du huts egingo

XIII. Nekazaritza eta Artisautza Azoka hartuko du aurtentzen ere Andaparapek Errosario Egunean. 30 stand batuko dituen azoka 10:00etan zabalduko dute: artisauak bost erakustokitan batuko dira; beste bat gorde dute umeentzako gantxillo tailerrarentzako. Deneriko baserriko produktuak egongo dira gainerakoetan: ortuariak, gazta, ogia, euskal pastela... Ohiturari eutsiz, txahala ere erreko dute burduntzian eta 20 kiloko gazta banatu hurreratuko diren artean. Sanmigelak agurtu aurretiko hitzordua izaten da azoka iurretaren zein bisitarientzat.

Mendi martxarako ibilbide bi eratu dituzte

II. Mendi Martxa eratu du Zaldai mendi taldeak Jai Batzordeagaz batera. Irailaren 24rako ibilbide bi prestatu dituzte, Aita San Migel plazatik abiatuta: 39 kilometroko ibilbide luzea (+2000 metroko desnibela) 07:00etan hasiko dute: Neberondo-Atxurkulu-Mañaria-Inungane-Leungane-Aramotz-Aizkorri-Marmola-Mugarrikolanda-Katazka-Santa Luzia-Iurreta. Atxurkulutik Mugarrikolandara bajatuko dira 09:00etan abiatuko duten 2. ibilbidean (15 km).

ASIMAIR
COMPRESORES

SALMENTA ETA ASISTENTZIA
TEKNIKO ZERBITZUA

Arriandiko industriagunea - UA14 - 13. arloa 5.pabilioia. 48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 94 620 24 15 - 94 620 20 64 Faxa: 94 620 37 86 E-maila: asimairsl@telefonos.es

UNDARRI BIKE

Bidebarrieta, 5 - bajo
48215 IURRETA
undarrbike@undarrbike.com

Bizikleten salmenta eta konponketa.

94 681 78 08
www.undarrbike.com

iBAi-ONDO
KAFETEGIA

Goizeko 06:00etatik
aurrera gosariak eta pintxoak

ONDO PASATU JAIETAN!

Bixente Kapanaga, 11 • 48215 IURRETA
☎ 94 620 21 57

Repara Tu Vehículo

Otra mecánica es posible

Erraz, denbora eta dirua aurreztuz

Zure eskura jarriko dugun tailer batean

Aste osoan zehar
(astelehenetik igandera 09:30etik 21:30era)

Erreserbatu zure boxa lehenbaitlehen!

N-634 errep. Durango-Bilbao 82km. • UEI-3 polig. 5 zkia behean - 48215 Iurreta • Tel./Fax: 94 681 79 14

Hainbat musika estilo eta parrandarako gogoa

Heavy-a, hip-hopa, erromeria, rantxerak...



Aurtengo Sanmigeletan musikaz eta umoreaz gozatu ahal-ko da kontzertuetan. Bihar bertan, esaterako, lehen Los Inpekables taldean ibilitakoak ikusiko ditugu Los Zopilotes Txirriaos taldean, Napar-Mex estiloagaz rantxera eta erritmoz beteta.

Aurretik, bi musika estilo oso desberdin: hip-hopa Barakaldoko 121 Crewaren eskutik, eta heavy doinuak Su

Ta Garrekin. Azken talde hau disko berria prestatzen dabil hileotan, eta urriaren amaieran kaleratzeko asmoa daukate.

Aste barruko eskaintzari begira jarrita, ezin aipatu barik utzi folk doinuak ekartzera etorriko den Symphoni Key taldea. Ibarretxe kultur etxean eskainiko du kontzertua 19:00etan.

Eskualdeko taldeak

Durangaldeko taldeen doinuak ere entzungo dira aurtengo Sanmigeletan. Jaien bigarren barikuan Desperdizio Durangoko taldeak punk-rock kontzertua eskainiko du, eta ondoren erromeriaren txanda izango da Edanekin. Urriaren 1ean Luhartzen erromeriagaz gozatu ahal-ko da, eta jaiak ere erromeria doinuekin amaituko dituzte, urriaren 2an.

Bihar 121 Crew, Su Ta Gar eta Los Zopilotes Txirriaos egongo dira; hilaren 30ean, Desperdizio eta Edan

Umeak, kaleko giroaren protagonista txikiak

Martitzenean bits festa egingo dute plazan

Domeka izaten da Sanmigel jaietan Umeen Eguna, baina egunero edukiko dute non gozatu etxeko txikienek. Pirritx eta Porrotxen bisitaren ondoren, bihar Sambhu Teatro taldeko pailazoak etorriko dira lurretara. Askondon eman- go dute emanaldia, 17:00etan.

Domekan umeen parkea ipiniko dute plazan, puzgarriekin eta tailerrekin. Goizez eta arratsaldean egongo da bertan jolasteko aukera arratsaldeko 19:30era arte. Orduan, parkea ixtean, Eriz Magoaren ikuskizunera abiatu dai-

tezke umeak, Dantzarin ibiliko da-eta magia egiten.

Martitzenean ere tailerrak egongo dira plazan, eta aparretan igeri egiteko moduko bits festa ere bai, 16:45 inguruan hasita.

San Migel bezperan, eguerdi inguruko jaietan Kiki eta Koko pailazoez jardungo dute plazan. Barikuan kantuan egin gura duenak Askondon karaokea edukiko du, eta urriaren 1ean, berriz, Maiztegiko umeek dantza erakustaldia egingo dute.





Betikoak

flexografía

- ofizinarako zigiluak
- fotolitoak

Bixente kapanaga, 9 · 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41



ondo pasatu jaietan!

lurretako BATZOKIA

C/Bixente Kapanaga, 21 - Tel: 94 620 27 64

Eguneko menua
Enkargatutako afariak
Asteburuetako afariak

AUTO - REPARACIONES MALLABIENA, S.L.

Mallabiena z/g - 48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 94 681 61 50 - Faxe: 94 681 80 33
mallabiena@teleline.es



KAMIOIAREN KONPONKETA OROKORRA
MARKA GUZTIETAKO TAKOGRAFO DIGITALAK

IVECO



TOLDOS

LECE S/L

Kataide Industrialgunea,
14.pabiloia (Musakola auzo)
Tf.: 943 792 383
Telefaxe: 943 770 445
20500 ARRASATE

Mallabiena auzoa, 6
Telefaxe: 94 681 76 19
48215 IURRETA

Inork baino hobeto eguzkiari aurre egiten diogu



beraz, urriaren 2an lurretan. Baina pilota ez da protagonista bakarra izango kirol arloan. Urriaren 1ean, 18:00etan, Karate-Ninjutsu Wado Kan klubak Montoitik Plazara kalejira egingo du, eta erakustaldia ere eskainiko dute bertan batutako gaztetxoekin.

**Urriaren 1ean
erakustaldi berezia
eskainiko du
Karate-Ninjutsu Wado
Kan klubak plazan**

**Asto probek aurten
ere ez dute hutsik
egingo; domeka
honetan izango dira
probalekuan**

Pilota, karatea eta asto probak gozagai jaietan

Pilotan gaztetxoak eta profesionalak ikusi ahalko dira lehia

Aurtengo Sanmigeletako kirol egitarauan pilotari lotutako hainbat hitzordu ageri dira. Irailaren 30eko barikuan, aurten hamarkada egingo duen San Migel Txapelketako finalak jokatu dituzte, 18:00etatik aurrera. Egun berean, 22:00etan, II. Frontenis Txapelketako irabazleak ere ebatziko dira. lurretako jaiak beste final handi baten testigu ere izango dira.

**Berasaluze eta Zabala
Urrutikoetxea eta
Apraizen kontra
lehiatuko dira
urriaren 2an**

Urriaren 2an, 16:00etan, gero eta garrantzia handiago hartzen ari den Pablo Berasaluze txapelketako finalak jokatu dituzte. Ondoren, 17:30 inguruan, Berrizko aurrelari abila pilota partidu profesionaleko protagonistetako bat izango dugu; Ibai Zabala berriztarragaz bikotea osatuz, Mikel Urrutikoetxea zarata moarraren eta Alexis Apraiz gernikarraren kontra jokatu dute. Bizkaitarren arteko lehia izango da,

Bizikleta zaleek, berriz, egun berean baina ordubete lehenago San Migel plazan dute hitzordua, hantxe hasiko baita Bizikleta Festaren hamabigarren aldia.

Amaitzeko, ezin ahaztu urtero plaza bete jende batzen duten asto probak. Zapatuan, 18:30ean, Vitorio Zelaia, Maiora elkarte eta Satxibar lehiatuko dira; domekan, ordu berean, Ander Urrola, Urkiaga aroztegia eta Igor Otaolea izango dira protagonistak. Irabazlek 360 euro irabaziko ditu.



anboto

*Jai zoriontsuak
opa deutsueguz*

anboto.org

Mallabiena

**M.Z.O. ITURGINTZA
GASA
BEROGAILUA
ERAIKUNTZA, S.L**

Mallabiena industriagunea, 6 - 48215 Iurreta - Tel.: 94 681 88 62 - mallabiena@mallabiena.com

ARRIBIDE

**Ondo pasa
San Migeletan!**

Tel.: 94 681 83 81

PLATERUENEAN > KANTAGINTZA

Azaroaren 26 eguerdian kalerik kale kantuan aterako dira Durangoko Plateruenak eta Berbaro euskara elkarteak bigarren urtez antolatu duten Kantulagun saioetan parte hartzen duten lagunak; martxoan eta maiatzean ere, "ezelako akademisizmorik barik, kantatuz gozatzeko" helburu soilagaz, Plateruenean kantatutakoa Durangoko kaleetan zehar ere eskainiko dute. Euskal kantutegi klasikotik zein modernotik hautatutako piezekin osatu dute bigarren ediziorako kantutegia.

Atzokoaren ondoren, beste zortzi saio izango dira Kantulagunen; Plateruenean, 20:00etan, hilean behin, eguen batez. Iazko saioetan legez, Beñat Aiartza gitarristak jardungo du saioen gidaritza musikala burutzen. Saio birik behin, Aiartzagaz batera, euskal kantari ezagunak gonbidatuko dituzte kafe antzokira.

Iaz, urtariletik ekainera arteko saioetan, ehun lagun inguru batu ziren kantagintzaren inguruko lagun giroko hitzorduetara; Plateruenean esan digutenez,

Atzokoaren ondoren
beste zortzi saio izango
dira Kantulagunen

Kantulagun, jendeari kanturako gustua kutsatu guran bigarrenez

Ikasturteko bederatzai saioetako hirutan, Plateruenetik kalera aterako dute bigarren edizioan Kantulagun, "herrian giroa sortu eta jendeari kantagintzagazko gustua kutsatzeko". Atzo egin zuten lehenengo saioa

dagoeneko hogeita hamar lagunek eman dute aurten saioetarako izena. Plateruenean bertan zein kultura@plateruena.net helbidea eman daiteke izena: antolatzaileek prestatutako kanta liburua eta saioen ardatz izango diren kantak biltzen dituzten disko bi jasoko dituzte izena emateko 15 euro ordaintzen dutenak.

Kanta liburua eta disko bi
jasoko dituzte izena
ematen duten guztiek

Lagun arteko giroan eta kantagintzaren inguruan "ondo pasatzea" dela ekimenaren helburu nagusia azpimarratu dute antolatzaileek: "Ez dago kantari ona izan beharrik, hau ez da gauza itxia". Euskal kantutegiagaz lagun artean gozatzeko gogoia duten guztiak daude gonbidatuta. ■ I.E.



PROGRAMAZIOA > ELORRION



Helduei zuzenduriko antzezlan bi eta umeentzako bat, ikasturtea abiatzeko

Irailan eta urrian, hiru antzerki obraren emanaldiak eskainiko dituzte Arriolan

Datorren barikukoa da 2011-2012 ikasturterako Elorrioko Arriola antzokian egingo diguten lehenengo eskaintza; Txalo antzerki talde euskaldunaren *Baginaren bakarriketak* obrak zabalduko du programazioa. Aitziber Garmendia eta Ainhoa Garai aktoreak dira obraren protagonista.

Elorrioko antzokiko egitarauak jasotzen duen hurrengo emanaldia, Elorrion aurretik ere hainbat lan eskaini dituen Producciones Yllana Madrileko taldearen

Producciones Yllana
Madrileko taldearen
azkeneko sorkuntza

Kukubiltxoren 'Leihotik
mundura', ikasturteko
lehenengoa umeentzat

azkeneko sorkuntza da: *Sensormen* izeneko; urriaren 1ean 22:00etan izango da ikusgai. Bulbul taldeagaz elkarlanean, eta komedia, musika, perkusioa eta proposamen eszeniko bereziak uztartzeko Yllanak aurreko ekoizpenetan erakutsitako abildadeagaz osatutako lana da *Sensormen*.

Arriolako ikusle txikienei zuzenduriko ikasturteko lehenengoa, Pako Aristiren testuan oinarrituta, Kukubiltxok osatu duen *Leihotik mundura* izango da. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

DISORDERS
IRAILAK 16 22:00etan
DISORDERS + NEVER
SURRENDERS + DOCTORS KLUB
KONTZERTUA/AGUR JAIA. Doan

AIKO ERROMERIA
IRAILAK 17 19:00etan
SURRENDERS + DOCTORS KLUB
DANTZALDI IBILTARIA. Sarrera doan

GAU ELEKTRONIKOA
URRIAK 7 22:30ean
GAU ELEKTRONIKOA
& FRIENDS
MUSIK KLUB. Sarrera: 10-12 euro

Gau Elektronikoa

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

www.plateruena.net

PRIVOLVA
Olatz de Andres

AURRESTREINALDIA
Irailak 13 • 20:00

San Agustin
KULTUR
GUNE
DURANGOKO UDALA

Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

Urriaren 1a arte epea zabalik hartu egizu parte!

**Anbotoren argazki
lehiaketa:**
2012ko egutegia



KIROLAK >

Sasikoa, Elorrio eta Mallabiak mailari eustea dute helburu bakar

Areto futboleko mailen birmoldaketaren ondorioz, iaz talde historikoak jaitsi ziren hirugarren mailara; gure hiru taldeek badakite mailari eustea badela nahikoa erronka



Sasikoak kluba gaztetu gura du; B taldean jokalar berri dezente daude eta lehenengo taldera ere hainbat igo dituzte. Kepa Aginako

Sasikoa Durangok iaz maila galdu zuen. Mallabia Hierros Servandok lau urtean lau igoera lortu ditu. Elorrioko Buskantzak, berriz, hainbat urte daramatza maila horretan. Asteburuan, areto futboleko hirugarren maila hasiko duten Durangaldeko hiru taldeek orain arte bakoi-tzak bere ibilbidea egin duen arren, aurtengo helburu bera izango dute: mailari eustea.

Sasikoako entrenatzaile Iban Urnietak argitzen duenez, federazioak aurtengo mailak birmoldatu gura zituen, iaz talde

asko jaitsi ziren hirugarren mailara, eta aurtengo lehiakortasuna inoiz baino handiagoa izango da. Hain zuzen ere, iaz maila galdu-tako Ibarrenaren kontra hasiko dute denboraldia etxetik kanpora. Bestalde, Sasikoak ez du fitxaketa askorik egin, eta B taldeko lau-bost jokalar igo ditu lehenengo taldera.

Mallabia Hierros Servando irabaztera ohituta dago, eta horrexek beldurtzen du gehien Juan Carlos Perez entrenatzaileak: "Hirugarren mailak ez du zerikusirik orain arte bizi izan

dugunagaz. Dena askoz profesionalagoa da. Aurtengo partidak galtzea egokituko zaigu, eta badakit ez dela erraza, baina egoera berrira moldatu beharko dugu". Aurtengo Sergio Garcia fitxatu dute Ermua futbol talde-

Mallabiak argi du aurtengo sufritzea egokituko zaiola partidu askotan

tik, eta orain modalitate berrira egokitzen dabil.

Elorrioko Buskantzak ere mailaz ez jaitea du helburu, baina Iñigo Astarloa entrenatzaileak baditu esperantza txikiak, iaz dotore ibili zirelako etxean. Hala ere, derrigor hobetu behar dute etxetik kanpora: "Azken urte bietan emaitza txarrak lortu ditugu kanpoan, esperientzia faltagatik edo". Aurtengo Asier Arrieta eta Gaizka Peña fitxatu dituzte. Peña futboleko hainbat taldetan ibili da; Arrietak haxe du bere lehenengo taldea. ■ J. Derteano.

Durangoko Kulturalak indartsu hasi du denboldia

Durangoko Kulturalak iaz liga amaitu zuen bezain indartsu hasi du aurtengo denboraldia. Lau jardunalditan hiru garaipen lortuta, sailkapenaren goialdean ipini dira. Joan zen asteburuan etxetik kanpora denboraldiko lehenengo garaipena lortu zuten, Elgoibar 0-2 menderatuta.

Orain arteko garaipen biak etxean lortuta zituen Kulturalak. Denboraldiko estreinako partidari 2-1 menderatu zuten Alaves B, eta hirugarren jardunaldian 4-0 jipoitu zuten Basconia. Bi partida horien artean, Laudio bisitatu eta 4-0 galdu zuten. ■ J.D.

Iturriaga, espero baino atzerago Kopenhagen

Kopenhaguen jokatzeko ari diren Munduko Txapelketan Eneritz Iturriagak 35. amaitu zuen martitzeneko erlojupekoan; 40.36-ko denbora egin du, irabazlearengandik 3.28ra.

Onartu duenez, ez du bere burua "sasoi puntu egokian" aurkitu. Gainera, pinganilloa erori zitzaion hasiera aldera; erreferentzia galtzeak, "kontzentrazioa galduarazi" ei dio, "eta desmoralizatu".

Judith Arndt alemaniarrek irabazi zuen lasterketa. Leire Olaberriak 16. amaitu zuen erlojupeko jarduna.

Bestalde, Durangoko Txirrindulari Elkarteak Lourdes Oiarbide gazteetako erlojupekoan lehiatuko da gaur. ■ J.D.

Alpino taldea, lehendakariarik barik oraingo

Eguazten arratsaldean ez ohi-ko batzar orokorra egin zuen Alpino-Tabira mendizale taldeak, Goienkalen daukaten lokalean. Gai ordeneko puntu bakarra presidente berriaren aukeraketa zen, baina ez zen hautagaririk aurkeztu. Presidente berria urria amaitu baino lehenago aukeratu behar dutenez, urriaren 26rako deitu dute hurrengo batzarra.

Oraingo, azkeneko hiru urteetan presidente izan den Iñaki Calvok jarraituko du mendizale taldeko buru, urrian egingo duten bigarren batzarra heldu bitartean. ■ J.D.

Unda Munduko Txapelketako lehen errondan kanporatuta

Oletarrak birritan atera zuen arerioa borroka gunetik, baina epaileak ez zion punturik eman

Turkian jokatu zuen Munduko Txapelketan Maider Undak ezin izan du lehenengo erronda gainditu, eta Cinthya Vanessa frantziarrak kanporatu zuen. Borro-

kaldian polemika ere egon zen, Undak birritan atera zuelako Vanessa borroka gunetik, baina epaileak ez zion punturik eman.

Gogoratu beharra dago oletarrak belaunean ebakuntza jasan zuela neguan, eta harrezkera errehabilitazioan ibili dela.

Kontuak kontu, zaildu egin zaio Londresko Olinpiar Jokoen tarteak. Geratzen diren txapelketetan ahalik goren geratzen saiatu behar du. ■ J.D.

Olinpiar Jokoen tarteak hurrengo txapelketetan segurtatu beharko du



Londresko Olinpiar Jokoen tarteak sailkatzea du helburu Undak.

Klasikoen Rallyak lehia eta ikuskizuna batuko ditu

Landako Gunean batuko dira gaur eta bihar 70 auto klasikoak; lehiatuko diren ibilgailuetako batzuk 40 urtetik gorakoak dira



Landako Gunean ezarriko dute auto klasikoen kontrolgunea. Clasicos Durango

Lehia eta ikuskizuna uztartuko ditu, barikuan eta zapatuan, XI. Klasikoen Rallyak. Bariku arratsaldean, 16:00etatik 19:00etara, parte hartuko duten 70 autoak (1960ko hamarkadatik orain 25 urtera artekoak) ikusteko aukera egongo da Landako Gunean. Ondoren, Ezkurdirantz abiatuko dira, 19:30ean handik abiatuko baitute lasterketa. Pilotu eta kopilotuek euren trebezia eta koordinazioa izango dituzte armarik onenak lasterketa irabazteko. Izan ere, gehienez 50 kilometro orduko abiadura hartu dezakete, eta ibilbidean dauden 90 kontrol guneetako bakoitzetik ordu jakin batean igaro beharko dute. Barikuko lasterketa lurreta, Berriz eta Mallabitik igaroko da,

Domeka eguerdian Abadiñoko trinkete ondoko aparkalekuan geldialdia egingo dute

eta berriro lurretara itzultzean, 21:30 inguruan, autoak ikusgai egongo dira elizaren atzealdeko aparkalekuan. Barikuko bigarren tramua Lekeitio, Ondarroa eta Elgoibartik egingo dute.

Zapatuan, 10:00etatik 11:00etara, proban parte hartzen ez duten beste 30 auto klasiko ikusteko aukera eskainiko dute Landako Gunean.

Ondoren, Durangalde osotik ibiliko dira; esaterako, 11:00 inguruan sei bider igaroko dira Muniketatik. 14:30ean, Abadiñoko trinkete ondoko aparkalekuan egongo dira ikusgai. Arratsaldean, 180 kilometroko ibilbidea osatuko dute Bergara, Elgeta, Urkiola, Otxandio, Zea-nuri eta Amorebieta-Etxanotik. Rallya 20:30ean amaituko da Ezkurdi plazan.

Ikusi ahaliko diren autoen artean Porsche, Alfa Romeo, MG eta BMW markak daude. Gidarietan Lasuen, Santorcuato, Moronati eta Horriola dira aipagarrienak. Iaz Espainiako Rally Txapelketan aritu ziren Olabego-geaskoetxea eta Santacoloma ere arituko dira. ■ J.D.

Eskaintza zabaldu du Beste Alde-Orue eskolak

Durangoko Txirrindulari Elkartegaz neguan ere ekintzak egingo dituzte gaztetxoek

Durangoko Txirrindulari Elkarteko Beste Alde-Orue eskolak neguan ere ekintzak eskainiko dizkie gaztetxoei. Normalean, urrian denboraldia amaitu eta otsailean bueltatzen ziren eskolara 7-14 urte arteko gaztetxoek, baina aurtengo azarotik aurrera, igerian, mendi martxetan, mountain bikean, Berrizko belodromoan... aritzeko aukera izango dute.

"Gurasoek halaxe eskatuta zabaldu dugu eskaintza. Horrela, prestaketa ez dute erabat galtzen eta gainera taldeko giro ona mantentzen dute", azaldu du Josu Atxotegi txirrindulari elkarteko kideak. Bizikletan ibiltzeko sarritan hotzegi egingo duela-

eta, deneriko irteerak proposatuko dituzte. Iaz legez aurtengo Eneko Lejarretak gidatuko du eskola.

Bizikletagaz 2012ko apirilaren hasiko dira, eta nobedade moduan aurtengo mountain bike eta pistan ere arituko dira errepiderako prestaketa moduan.

Martitzenean atek zabalik Martitzenean, 19:00etatik aurrera, gura duenak Durangoko Txirrindulari Elkartek Muruetorre auzunean duen lokala bisitatu ahaliko du: "Elkartea herrira zabaldu gura dugu". Elkartean izena emateko e-mail honetara idatzi daiteke: scduranguesa@euskalnet.net. ■ J.D.

Isasik urrezko bi Espainiako Txapelketan

Kadete mailan pistako Espainiako Txapelketa jokatu dute Tafallan, eta eskualdeko txirrindulariek uztatu oparoa batu dute. Euskadiko Selezioagaz Ziortza Isasik (Ciclos Iturriaga-Autos Elorrio) urrezko domina bi irabazi ditu, Scrath modalitatean eta taldekako abiadura proban. Brontzea ere jantzi du, banakako jarraipen proban eta taldekako jarraipenean.

Aritz Hernández (Gaurisa-Renault) ere badu zer ospatua, brontzeko domina bi irabazi baititu puntuazioan eta taldekako jarraipenean.

Aritz Badiolak (Durangaldeko Belodromo) brontzeko domina lortu du abidura proban, eta dominaren atarian, laugarren, geratu da keirin modalitatean. ■ J.D.

Diez kanpora eta Calleja zein Urrejola aurrera Cafés Baqué

Eguaztenean Cafés Baqué pilota txapelketako bigarren jardunaldia jokatu zuten Abadiñoko pilotalekuan. Kadeteetako lehenengo partidaren Diez atxondarrak galdu egin zuen San Sebastian gernikarraren kontra (10-18). Ondorioz, txapelketatik kanpora geratu da.

Kadeteetako bigarren neurketan Zaldibarko Callejak hurrengo txandarako txartela

Urrejola otxandiarrek gogor lan egin behar izan zuen Albizu kanporatzeko (22-20)

jokatu barik lortu zuen. Bere kontrarioak, Azkueta zarata-moztarrak, ezin izan zuen partida jokatu. Gazteen mailan eskualdeko beste ordezkari batek jokatu zuen. Urrejola otxandiarrek 22-20 menderatu zuen Albizu markinarra, partida gogorrean, eta hurrengo faserako sailkatu da. Azkenik, gazteetako bigarren partidaren Ortiz mungiarrek 22-14 kanporatu zuen Artetxe portugaletearra. Hurrengo jardunaldia Atxondon jokatuko dute. ■ J.D.

Barandika eta Lasuen tiralariak Europako onenekin lehiatzen

Abadiño Sokatira Taldeko Mikel Lasuen eta Mikel Barandika tiralariak lur gaineko Europako Sokatira Txapelketan parte hartzen ari dira. Lasuen Erandioko Goierri taldeagaz joan da, eta Barandika Laukizko Gaztedigaz.

Lasuenek atzo tiraldi mixtoetan parte hartu zuen eta, gaur, biek 640 kilora artekoan jardungo dute. 60 taldetik gora lehiatuko dira (Herbehereak, Suitza, Letonia, Ingalaterra...). Orain urte batzuk ere parte hartu zuten Europako Txapelketan.

Abadiñok normalean ez du lur gaineko txapelketetan parte hartzen, baina abuztuan Laukiz izandako nazioarteko txapelketa batean aritu ziren. Txapelketa bigarren amaitu zuten lan bikaina eginez, eta orduan proposatu zieten tiralariei Goierri eta Gaztedik Europako lehiaren parte hartzeko. ■ J.D.

Abadiñoko tiralariak Gaztedi eta Goierri taldeekin Ingalaterran ari dira lehiatzen

Tabirakoko gizonak Baqué Torneoaren bila

Bihar finalerdia jokatuko dute Arrasateren kontra; finala domeka eguerdian izango da



Joan zen asteburuan emakumeek torneo irabazi zuten.

Baqué Tornea jokatuko dute asteburuan Landako Kiroldegian. Bihar, 16:45ean, Tabirako Baqué Arrasateren kontra lehiatuko da finalerdia batean; bestean Aloña Mendi eta Burgos neurtuko dira.

Domekan, 10:00etan, hiru garren eta laugarren postuak ebazteko neurketak jokatuko dituzte eta, 12:00etan, bezperako irabazleen arteko finala hasiko da. Tornea irabazteko faborito nagusia Aloña Mendi

da, EBA mailan jokatzen duela, beste hiru taldeek baino maila bat gorago.

Emakumeen Baqué Tornea joan zen asteburuan jokatu zuten, eta Tabirako Baqué irabazi zuen. Etxeko taldeak 55-50 kanporatu zuen Portugalete finalerdietan; bigarren finalerdian Loiola nagusitu zen, Irlandas taldearen kontra (61-48). Finalean, Tabirakok 54-47 irabazi zion Loiolari Baqué Tornea irabaziz. ■ J.D.

Aurkezpen ofizialagaz batera, ligari ekingo dio Durango Ilarduyak

Euskal liga hasiko dute Durango Ilarduya Bk eta Elorrio Rugby Taldeak asteburuan



DRTren talde nagusiak urrian hasiko du liga. Kepa Aginako

Zapatuan Durango Rugby Taldeak bere talde guztien aurkezpen ofiziala egingo du Goienkaleko Rugby tabernaren parean. 13:00etan ipini dute hitzordua, eta talde guztien argazki ofiziala ateratzeaz batera baloiak erregalatuko dituzte.

Arratsaldean, Arripausetan, ligako estreinako hainbat partida ikusi ahaliko dira. 15:00etan kadeteek Santanderko Independiente taldearen kontra jokatu dute, eta 16:15ean klub berekoen kontra ariko dira gazteak.

Ondoren, Durango Ilarduya Bk euskal ligari ekingo dio, 17:00etan, Uribealde taldearen kontra. Talde beraren kontra lehiatuko du segidan lehenengo taldea, lagun arteko neurketan.

Durungaldeak euskal ligan duen bigarren ordezkaririk, Elorrio Rugby Taldeak, Iruñean ekingo dio denboraldiari zapatuan. Urdin Ugarte eta Jon Ander Graciaren aginduetara taldeak gora egin du, sendotu egin da, eta aurtengo "lehenengo

Durango Ilarduya Bk Uribealdearen kontra ekingo dio aurtengo denboraldiari

hiruren artean amaitzea dugu helburu", Asier Igarza klubeko zuzendaritzako kidearen esanetan. Horrela, liga lehiatzeko bigarren fasera sailkatuko lirakeke.

Elorriok lehenengo hiru postuetan sailkatzea du helburu

DRTko emakumeen taldea

Berezia da Durango Ilarduyako emakumezko taldearen kasua. Aurtengo 2012ko urte hasieran ekingo diote ligari. Izan ere, iaz Getxo eta Gasteizko Espainiako ligan ez eze euskal ligan ere jokatu zuten esan arren, estatu mailakoan bakarrik aritu ziren: ondorioz, euskal ligan talde gutxi eta liga deskafeinatua. Taldeena ez eze, jokalaririk falta ere nabari dute klub askok.

Horregatik federazioak neurriak hartu ditu. Liga hasiera atzeratu eta urtea amaitu bitartean, aste birik behin, emakumeen errugbia sustatzeko jardunaldiak antolatuko dituzte hainbat herritan. Zapatuan, aurkezpenaren ondoren, emakumeak Hernanira joango dira lehenengo jaialdian parte hartzera. DRTk ere eskatu du jardunaldi bat Durango izatea, baina oraindik zehaztu barik dago. ■ J.D.

Iaz ez bezala, matematikak aldeko ditu Kurutziagak

Areto futboleko bigarren mailan ez eze, euskal ligan ere denboraldia hasiko dute Kurutziagak eta Sasikoa Bk. Iaz goragoko mailetak Bizkaiko hainbat taldek maila galdu zuten, Kurutziaga ere mailaz jaisteko zorian egon zen, arrasteek eraginda. Azkenean mailari eutsi zioten, baina azken bosgarrena halako arriskuan ibiltzea ez da sarritan ikusten. Aurtengo ematen du euskal ligan mantentzea ez dela hain gaitza izango, bigarren mailako talde bizkaitarrak indartsuak direlako, sailkapenaren goialdean ibili beharrekoak.

Bestelakoan, Kurutziagak iazko blokeari eutsi dio. Aurre-denboraldian "eskas samar" ibili direla onartu du Rober Perez entrenatzaileak, baina, hala ere, gutxienez puntu baten bila doaz zapatuan Tolosara.

Sasikoa Bk Lauburu Ibarren kontra jokatu du zapatu eguerdian Landako kiroldegian. Aurtengo kluba gaztetu gura izan dute, eta hainbat jokalaririk berri daude. B taldeko hainbat lehenengo taldera ere igo dira. ■ J.D.

Zapatuan 24 orduz bizkletara igoko da Jon Karro abadiñarra

Heldu da eguna. Bihar, 18:00etan, Traña-Matienako Trañabarren kalean (Santander bankuaren parean) hasiko du Jon Karro *24 ordu Non Stop* ekimena. Kirola eta gaitasuna (kasu honetan, diabetea) bateragarriak direla erakutsi gura du abadiñarrak.

Hurrengo eguneko 18:00ak arte ibiliko da bizkiletan. 95 kilometroko ibilbidea osatu du (Abadiño, Elorrio, Berriz, Zornotza, Zeanuri eta handik buelta) eta, guztira, 630 km egingo ditu. Ekimena irekia da, eta gura duten guztiek bat egin dezakete Karrogaz gura beste kilometro osatzeko. Baldintza bakarra erronka egiten dabiltzanei aurea ez hartzea izango da.

Bestalde, Karrok jakinarazi duenez, prest dituzte 'DT1 Team' izeneko kamiseta teknikoak. Hainbat neurritan daude salgai, 20 euroan. Facebooken Por&Para da DT1 orrialdean agertzen diren kamiseta lortu ahal izateko egin beharrekoen argibideak. ■ J.D.

Berriz eta Zalduak derbia jokatu dute gorenean

Berrizek galdu egin zuen lehen jardunaldian; Zalduak bana berdindu zuen etxean

Aspaldi ikusi bako derbia jokatu dute Berrizek eta Zalduak. Lehia Berrizburun izango da, domekan, 11:30ean: "Zalduak Berrizko lehenengo taldearen kontra azkeneko jokatu zuela izango dira 15 bat urte; neuk ere jokatu nuen partida hori", gogoratzen du Iñaki Garcia Zalduako entrenatzaileak.

Zaldibarko taldeak hiru jokalaririk fitxatu ditu aurtengo lehenengo derbitik: Aimar Muniay, Borja Carro eta Cristian Cedeno. Azken hori, Zalduatik joan zen Berrizera.

Lehenengo jardunaldian Zalduak bana berdindu zuen Begoñaren kontra, eta Berrizek 2-0 galdu zuen Loian. ■ J.D.



Berrizek 0-2 galdu zuen Loian egindako bisitan. Kepa Aginako

Agenda

FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Durango Kulturala - Beasain

Zapatuan, 17:00etan, Tabiran

OHOREZKO MAILA

Elorrio - Sodupe

Zapatuan, 17:00etan, Eleizalden

GOREN MAILA

Berriz - Zaldia

Domekan, 11:30ean, Berrizburun

Iurretako - Retuerto

Zapatuan, 18:00etan, Larrakozelain

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Elorrioko Buskantza - Internacional

Zapatuan, 18:00etan, Udako kiroldegian

EUSKAL LIGA

Sasikoa - Ibarra

Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian

PILOTA

CAFÉS BAQUÉ TXAPELKETA

Kadeteak:

- Garaloa (Nafarroa) - Uribe (Leioa)

- Gomez (Errlora) - Mendia (Zeanuri)

Gazteak:

- Zurrusta (Dima) - Madariaga (Bermeo)

- Sanchez (Gipuzkoa) - Gorosabel (Markina)

Eguaztenean, 19:00etan, Atxondoko pilotalekuan

OLAZAR TXAPELKETA

Lau t'erdian

- Legorburu (Galdakao) - Dorronsora (Araba)

- Aurrenetxe (Lezama) - Rezusta (Gipuzkoa)

- Larunbe (Galdakao) - Artola (Gipuzkoa)

Eguenean, 21:30ean, Zaldibarko pilotalekuan

Mallabian mendi duatloia antolatuko dute azaroan

Duatloien munduan esperientzia zabala duten zazpi elkartek Euskal Herriko I. Mendi Duatloia Zirkuitua antolatu dute. Zirkuitua zazpi lasterketek osatzen dute, eta horietako bat Mallabia eta inguruetan antolatuko dute, azaroaren 27ko igandean. Lasterketa 11:00etan abiatuko da, baina oraindik ibilbidea ez dago zehaztuta.

Lehenengo duatloia bihar izango da Ibarren. Atletik 5,7 kilometroko ibilbidea egingo dute korrika, lehen sektorean. Ondoren, 6,9 kilometroko ibilbidea birritan osatuko dute mendi bizikletagaz. Amaitzeko, 2,9 km berri korrika. Gainerako duatloiak Arriaran, Zubietan, Zilbetan, Langraitzen, Amasan eta Zallan dira. ■ J.D.

EDERTASUN GIDA

ESTETIKA ZENTROAK

Cristina Agirre
• apaindegia •

CA

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

Ana Camarero
• estetika zentroa •

LASER FOTODEPILAZIO MEDIKO-ESTETIKOA

- Aurpegi garbiketa
- Argizari beroz depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Golenkale 16-1.esk • Tel.: 94 681 73 80 • Durango

Nerea Masaje eta Estetika Zentroa

Nerea Mallabiabarrena • Merche García
Masajista Estetizista

- Kirol masaje terapeutikoa
- AYURBEDAko masaje indiarrek antiestres olio beroekin
- Diodo bidezko laserra (lightsheer)

Nutrizio eta kosmetika zelular aktiboa 100% naturala

synthesis

Untzillatx, 5 - 1C • Tel.: 94 681 86 75 • Durango



- Jon Sopelana
- Lunik ileapaindegia dauka Durangon

Ilea berriz indartzeko

Uda amaitu berri zaigun honetan, zelan izaten dugu ilea? Igartzen al duzue sasoi honetan kalterik?

Udazkenean sartu gara dagoeneko, egunak geroago eta laburragoak direla agerikoa da, eta argitasuna gutxitzen doa. Dena dela, horrek ez du ezkututzen gure buru-azalak zein ileek jasotako tratua; hainbat elementu dira arruntak udan zehar ileari kalte egiten diotenak: kloroa, itsasoko ur gazia, eguzkia...

Baina kaltea sortu arren, izango du soluziorik, ezta?

Urteko sasoi honetan gure ileak desorekatuta geratzen dira. Horretarako behar bezalako tratamendua eman behar zaio ileari, eta baita buruazalari ere. Tratamendu egokia emanez gero, berriz ere lortuko genuke ile zoragarria edukitzea. Hau guztia kontutan daukagu Lunik ileapaindegian, eta bezero bakoitzari tratamendu pertsonalizatua eskaintzen diogu, beti ere emaitzarik onenak emango dizkigun ziurtasunagaz.

Zeozar berezia eskaintzen al diozue bezeroari?

Lunik ile-apaindegian erabiltzen dugun tratamendua Avedarena da; indiar medikuntza tradizionalan oinarritutakoa, hain zuzen ere. Yurbeda sisteman oinarritua dago; tratamendu hau oinarritzko olioekin egin da, hau da, naturak ematen dizkigun produktuetatik eratorritako olioekin.

Zein izango da azkeneko emaitza?

Azken finean tratamendu hauekin Lunik ileapiandegian lortuko duguna ilea berriz ere indartzea da, koloreak berpiztea, gure ileek behar dutena ematea.

ILEAPAINDEGIAK

iunik ileapaindegia

astehenetik asteazkenera 10:00-21:00

osteguna eta ostirala 09:00-22:00

larunbata 09:00-17:00

Antso estegiz, 1•Durango•Tel.: 94 621 64 91

NUKLEO ileapaindegia

myspace.com/pelukerianukleo

Nizeto Urkizu, 14 behe•Elorrio•Tel.: 94 658 29 96



**AUKERAKO AUTOREN BAT INTERESATZEN
BAZAIZU, KONFIANTZAZKO BESTE TAILER
BATERA ERE ERAMAN ZENEZAKE ONDO
AZTERTZERA NAHI IZANEZ GERO.**

Andoni Baños

Andoni Baños,
Goursako Aukerako
Ibilgailuen Arduraduna



**RENAULT MÉGANE
DYNAMIQUE**
1.5 dCi 105cv. Año 2010.

14.800€

**RENAULT
OCASIÓN**

ZUK DENA NAHI DUZULAKO.

PSP transferentzia gastuak barne. 11/09/30era arte edo izakinak amaitu arte balio duen eskaintza.
Ikustarazitako eta eskainitako bertsioak desberdinak izan daitezke.

GAURSA AUTOAK

ARRIANDI 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA. GRAN VÍA 65. TEL. 94 441 74 50. BILBAO. www.gaursaautoak.com



anboto.iragarkilaburrak.com

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu zaitez, www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23. **Paperean, ordainduta:** Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Abadiño. Muntzaratz. 3 logela handi, 2 komun, sukaldea, egongela jangelarekin eta balkoi handia. Ganbara. Berriztuta. Kalefazioa. Tel.: 678-83 60 50.

Atxondo. 75 m2. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, balkoia. Oso eguzkitsua. Kanpora. Kalefazioa. Berriztatuta Altzairuz hornitua. 180.000 euro. Tel.: 655-73 74 47.

Atxondo. 82 m2. 3 logela, sukaldea, egongela ederra, komuna. 2 balkoi. Ganbara eta igogailua. Oso eguzkitsua. Kanpora. Berriztatuta eta altzairuz hornitua. Tel.: 628-78 78 35

Berriz. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Tel: 647-77 73 92.

